



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abenduaren 4a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2018ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2018ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2018ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 157.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. 2018ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoea adieraztea (10-19/LEY-00006).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostena Nafarroako Gobernuari igortzea.

4. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea deitzea, Kontuen Ganberako lehendakariak ager dadin, egindako txostena azaltze aldera.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2018ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (4. or.).

I. Sarrera (5. or.).

II. Foru sektore publikoaren zedarritzea (7. or.).

II.1. Foru Sektore Publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera (7. or.).

II.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari

eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera (11. or.).

III. Iritzia (12. or.).

III.1. 2018ko urteko kontuei buruzko auditoretza finantzarioko iritzia (13. or.).

III.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (14. or.).

IV. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2018ko ekitaldiko kontuen laburpena (15. or.).

IV.1 2018ko aurrekontuaren likidazioa (15. or.).

IV.2. 2018ko aurrekontu-emaizta (16. or.).

IV.3. Diruzaintza-gerakina 2018ko abenduaren 31n (16. or.).

IV.4. 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (17. or.).

IV.5. 2018ko emaitzen kontua (18. or.).

V. Ondorioak eta gomendioak (20. or.).

V.1. Nafarroako 2018ko aurrekontu orokorrak (20. or.).

V.2. NFKAren eta haren EEAAn 2018ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (24. or.).

V.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (27. or.).

V.4. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (32. or.).

V.5. Langile-gastuak (32. or.).

V.6. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (37. or.).

V.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital-transferentziengatiko gastuak (42. or.).

V.8. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa (46. or.).

V.9. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak (50. or.).

V.10. Bestelako diru-sarrerak (55. or.).

V.11. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak (57. or.).

V.12. Diruzaintza (59. or.).

V.13. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk (60. or.).

V.14. Sozietate eta Fundazio Publikoak (62. or.).

2018ko Kontu Orokorraren Oroitidazkiaren laburpena.

(Oharra: Aipatutako Kontu Orokorraren oroitidazkia foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Kontuen Ganberak Nafarroako 2018ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu.

Honako hauek dira gure lanaren konklusio nagusiak:

1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2018ko abenduaren 31ko urteko kontuek fideltasunez erakusten dute, alderdi esanguratsuetan, haren ondarearen, haren finantza-egoeraren eta haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoaren irudia. Halere, salbuespen batzuk badaude, zerkusia dutenak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako araudia guztiz ez aplikatzearekin, inbentariarik ez egotearekin eta montepioak sortutako betebeharrak aktuarialak ez erregistratzearekin.

2) 2018ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeakoak zaizkion arauarekin. Salbuespen gisa aipatzen da indarraldia amaituta duten kontratuekin edo kontratu-euskarririk gabe emandako prestazioengatik ordaindutako gastua.

3) Nafarroako Foru Komunitateak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arauak eta gastu-araua bete ditu.

4) Foru Komunitateko Administrazioaren egoera ekonomiko-finantzarioak nolabaiteko okertze bat erakusten du adierazle batzuetan; halere, zorrarekin edo funts propioekin lotutako beste batzuek hobera egin dute; nolana ere, munta aipagarria duen zor bat badago, datozen urteetan amortizatu beharko dena eta hala ezarritako egutegiarengatik, nola finantza-merkatuetako interes-tasen aldaketengatik nabarmen baldintzatuta dagoena.

5) Finantza-zamak gora egon du 2017koaren aldean, besteak beste aurreko urteko diruzaintza-gerakina erabiliz egindako amortizazio aurreratuarengatik. Zorra amortizatzeke egutegiak inplikatzeko 2024a baino lehen amortizatu beharko dela gutzitzekoaren ehuneko 48. Epe luzeko zorrari dagokionez, 2018ko martxoan, rating agentzia batek Nafarroari "A+", perspektiba positiboarekin" kalifikazioa eman zion, Estatuko sailkapena kontuan hartuta baimendutako maximoa.

6) Langileriari dagokienez, nabarmendu behar dugu bere horretan jarraitzen duela egoera kezkarria batek; haren bereizgarria da langile finkoen alden eta baje kopuruaren alde garbia negatiboa dela. Horrek, izan ere, lanpostu finkoen kopuruaren beherakada bat eta lanpostu hutsen igoera bat erakusten ditu; gainera, langile finkoen bajeak ez dira estaltzen ari, eta egiturazko beharrak eta behar iraunkorrak aldi baterako langileekin estaltzen dira, nahiz eta lan-eskaintza publiko aipagarriak onetsi diren, zeinak kasuko deialdietan gauzatu beharko liritekeen. Horrek eragin du enpleguaren behin-behinekotasuna handitu izana, 2018ko abenduaren 31n ehuneko 48ra iristeraino; gure ustez, portzentaje hori gehiegizkoa eta kezkarria da, eta giza faktorearen halako deskapitalizazio bat inplikatzeko du. Halaber, plantillaren zahartze progresibo bat antzemanez, langileen ehuneko 52k 50 urte baino gehiago baitauzkate 2018an, horrek dakartzan ondorioekin.

7) Inbertsioen arloko gastuak txikia izaten jarraitzen du, eta 2010ean izan zenaren ehuneko 56 egiten du; halere, ikusi da 2018an ehuneko 28ko igoera bat gertatu dela 2017. urtearekin alderatuta.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea betez eta 2019rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontu Orokorrak fiskalizatu behar ditu; kontu horiek foru sektore publikoa osatzen duten entitateen kontuak hartzen dituzte.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (aurrerantzean, NFKA) eta haren erakunde autonomoen (aurrerantzean, EEAA) 2018ko ekitaldiko urteko kontuen erregulartasuna fiskalizatu dugu. Kontu horiek ekitaldian zehar egin diren aurrekontu- eta diruzaintza-eragiketa guztiak hartzen dituzte, eta honako dokumentu hauetan dautza, funtsean:

- Aurrekontuen likidazioa.
- Egoeraren balantzea.
- Emaidza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Oroitidazki orokor bat, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkitzen duena.

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da gure iritzia adieraztea honako honi buruz: ea NFKA-ren eta haren erakunde autonomoen 2018ko urteko kontuek erakusten ote duten, muntadun diren alderdi guztietan, ondareak, aurrekontu-likidazioak eta egoera finantzarioak 2018ko abenduaren 31n zeukaten egoeraren irudi zehatza. Orobat, informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatu beharrekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraiturik, data horretan bukatutako urtealdiko emaitza ekonomiko eta ondarekoa aztertu dugu.

Urteko kontuen finantza-auditoretzarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: ea NFKAk eta bere EEAAek ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak, zaizkion arauekin.

Fiskalizazioaren beste helburu bat izan da Nafarroako kontu orokorreari buruzko aurreko txostenetan egindako gomendioen jarraipena egitea.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, NFKAri 2018an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 20/2017 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa (AEFILO, aurrerantzean).
- 130/2018 Foru Agindua, urria 8koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, 2018ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorrak eta balantze kontuak ixteko eta likidatzeko eta 2019ko ekitaldia irekitzeko arauak onesten dituena.
- Indarra duen araudi sektoriala.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean, foru sektore publikoaren zedarritze bat jasotzen du, eta hirugarrenean finantzei eta legeria betetzeari buruz daukagun iritzia ematen dugu, 2018ko ekitaldiko NFKAren eta haren EEAAren urteko kontuei dagokienez; laugarrenak kontabilitateko egoera-orri nagusien laburpen bat jasotzen du; eta bosgarrenean, honako alderdi hauei buruz egindako lanean lortutako konklusio eta gomendioak aipatzen ditugu: NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2018ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, Ganbera ho-

nek aurreko txostenetan emandako gomendio nagusien jarraipena, beste kudeaketa arlo garrantzitsu batzuk, eta enpresen eta fundazioen sektore publikoa.

Azkenik, txostenak Nafarroako kontu orokorren 2018ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egina. Haren testu osoa hemen kontsulta daiteke:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2018/

Gure jarduketan aintzat hartu dira Nafarroako Gobernuako Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuak egindako txostenak.

Beren kontuak Nafarroako kontu orokorretan sarturik dauzkaten Nafarroako Foru sektore publikoaren gainerako entitateetarako, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren 2018ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2018ko urteko kontuak auditoretza pribatuko enpresa batek fiskalizatu ditu.
- Urteko kontuak eta sozietate eta fundazio publikoen legezkotasuna Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuaren zuzendaritzapean auditatzen dituzte auditoretzako enpresa pribatu batzuek; horri dagokionez, kasuko auditoretza-txostenak aztertu ditugu.

Halaber, aintzat hartu dira Kontuen Ganbera honek 2018ko ekitaldiari buruz egin dituen edo egiteko fasean dauden honako txosten hauek:

- Errenta bermatua eta gizarteratzea (2016-2018)
- Farmazia-prestazioaren kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.
- Toki ogasunek tributuetan parte hartzeko funtsa (2009-2018).
- Salestarren operazioko konpromisoen eta arriskuen ebaluazioa
- Hezkuntza Departamentuko langile funtzionarioen nominaren kudeaketa.
- Osasun mentalerako programa.
- Enplegu-arloko bitartekotzarako eta laguntzetarako programa.
- NFKAk Tracasari egindako enkarguak.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordainsari aldakorren azterketa.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Azterketa lana 2019ko apirila eta iraila bitartean egin du auditoretzako lau teknikarik eta auditoretzako teknikari batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren EEAAetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilari ohiak alegazioak aurkez zituzten.

Horietatik bakarrak ere ez du alegaziorik aurkeztu Kontuen Ganberak ezarritako epean; hori dela eta, txostena behin betikotzat jo da.

II. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA

Foru sektore publikoaren 2018ko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:


- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- AEFILOaren eraginetarako.

II.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.

Honako hauek dira 2018an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako EEAAk.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.
- NFKAk sortutako fundazio publikoak eta haren erakunde publikoak, bai eta, pribatuak izanda ere, geroztik publikotzat hartuak izateko baldintzak betetzen dituztenak ere (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 125. artikulua).

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2018ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa:



Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2018ko abenduaren 31n, NFKAren egiturak bederatzi departamentu zeuzkan; horietatik, zortzi EEAAri atxikita zeuden.
- NFKAk 17 enpresaren partaidetzen gehiengoa zeukan, aipatutako datan. Zuzenean parte hartzen zuen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLU (aurrerantzean, NEKP) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan; zeharka, berriz, NEKPren eta haren menpeko sozietateen bitartez, hurrengo 16 entitate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehuneko NEKP	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Gaiaz gaiko azpiegiturak eta kultura-, aisia- eta kirol-azpiegiturak
Navarra de Infraestructuras Locales SA (Nilsa)	100	Tokian tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (Posusa)	100	Ingurumen jarduerak eta industria ehundura berrosatzea
Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea eta merkaturatzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (Sodena)	100	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa
Natural Climate Systems SA (MIYABI)	100	Sustapena, eraikuntza eta zaharberritzea, eraginkortasun energetikoko irizpideak erabilia
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea
Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Katastroa, kartografia
Tracasa Instrumental SL		

2017arekin alderatuta, ez da aldaketarik izan enpresa-kopuruan. Horretaz gainera, aipatu behar dugu 2019ko otsailean Natural Climate Systems SA enpresa desegin egin dela.

- Honako hauek dira NFKAren fundazio publikoak 2018ko abenduaren 31n:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza
Miguel Induráin	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan

Fundazio publikoak 2017ko abenduaren 31ko berak dira.

2018ko abenduaren 31n, honako hauek dira Foru Sektorre Publikoa osatzen duten entitateen 2018ko abenduaren 31ko datu ekonomiko eta langile-gastu nagusiak, kontu orokorren oroitidazkian zabalago eta iruzkinekin ageri direnak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Departamentuak	171.833	2.302.962
Erakunde autonomoak	3.930.831	1.876.703
Guztira	4.102.664	4.179.665

Langileak, 2018ko abenduaren 31n	28.801
-----------------------------------------	---------------

- Sozietate publiko bateratuak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Ekitaldiko emaitza	Dirulaguntzak Foru Administrazioa	Epe luzeko zorpe- tzea	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
17 sozietateak bateratu ondorengo datuak	2.920	30.555	94.253	645.503	1.2650

- Fundazioak:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Ekitaldiko soberakina	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Bost fundazio publikoak, guztira	-657	1.839	160

- Beste entitate batzuk:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Foru Ogasunari Çitzulitako gerakina	Langileak, 2018-12-31
Nafarroako Parlamentua	13.811.524	11.523.090	2.766.077	72
Kontuen Ganbera	2.594.074	2.515.891	141.869	31
Arartekoa	754.949	701.682	53.267	8
Nafarroako Kontseilua	390.218	282.301	107.917	2

Hemen xehetasunak emanda azaldu dugun foru sektore publiko horri buruz egin dugu lan hau. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudia kontuan hartuta, ondoren xehetasunekin azalduakoa da txosten honen V.3 epigrafean ezarritako arauen betetzea aztertzeko aintzat hartu duguna.

II.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA.

Kontabilitate nazionaleko terminoetan (SEC´2010), 2018rako honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorekotzat:

- NFKA eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa ente publikoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehien bat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2018rako, hurrengo 14 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: CPEN, CNAI, CEIN, CAT, GAN, Intia, NICDO, Nasertic, Sodena, Tracasa, Tracasa Instrumental, Start Up Capital Navarra, Caviar Per Se eta Posusa. Azken biak likidazioan daude.
- Bestetik, zortzi fundazio sartu dira: Baluarte Fundazioa, Conservación del Patrimonio Histórico de Navarra Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Fundación para la Tutela de las Personas Adultas, Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte Fundazioa eta Instituto de Investigación Sanitaria de Navarra Fundazioa.

III. IRITZIA

NFKAren eta haren EEAAn 2018ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen IV. epigrafean; oroitidazkia, berriz, osorik erantsi dugu.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua da Nafarroako kontu orokorrak egiteko erantzukizuna duena, eta kontu horiek halako moduz egin behar ditu non zehatz irudikatuko baitituzte NFKAren eta haren EEAAn aurrekontu-betetzea, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden urteko kontuak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

Nafarroako 2018ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua 2019ko ekainaren 26ko erabakiaren bitartez onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen. Azken horrek Kontuen Ganberara igorri zuen Mahaia hartutako erabakiaren bidez.

Kontu orokorrak egiteko erantzukizunaz gainera, aipatutako departamentuak bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea NFKAren eta haren EEAAn 2018ko urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazkiago, fiskalizazio finantzarioei buruzko IS-SAI-ES 200 arauari eta betetzeari buruzko 400 arauari jarraituz. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburuarekin: arrazoizko segurtasun bat izatea urteko kontuetan akats materialik ez egoteari buruz, eta ekitaldian egindako jarduerak zein aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarraren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

III.1. 2018ko URTEKO KONTUEI BURUZKO AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin

a) Ganbera honek bere aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean jasota dauden kontu, irizpide eta printzipioak, nagusiki zergen, zordunen, tributu-hartzekodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrekin batera kontuan hartu beharra dago disfuntzio batzuk badaudela hirugarrenen kontabilitate lagungarriaren eta tributu kudeaketaren (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate sistemaren artean, eta, halaber, garrantzi txikiagoa duten akats batzuk badaudela, kontuak edo epigrafeak sailkatzerakoan; horiek beraiekin dakarte diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoeraren egitura, aurrekontu-emaitzarena, diruzaintza-gerakinarena eta balantzearena bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduarekin, eta ez aurkeztea ez ondare garbiaren aldaketan egoera, ez eskudiruaren fluxuen egoera.

b) Ez balantzean, ez oroitidatzian ez da informaziorik erregistratu NFKAren langile funtzionario jardunekoaren eta pasiboen montepioek sortutako betebeharrak aktuariari buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2019-2087 aldirako kostua 1.898 milioi euro konstante ingurukoa izanen da.

c) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetu materialen" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 2.351,99 milioi eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritzian, "Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenarekin" atalaren a) eta b) paragrafoetan deskribatutako egitateen eraginengatik ez bada eta c) paragrafoan norainokoaren mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, erantsitako urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz. Halaber, kontu orokorrak emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio Aurrekontua finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Azpimarra egiteko paragrafoa

Arreta deitu nahi dugu urteko kontuetan jasotako honako alderdi hauei buruz, zeinek eraginik ez baitute emandako iritzian:

- 2017an lortutako aurrekontu-superabitak –zeina funtsean baitator Hitzarmen Ekonomikoaren indarrez Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena behin betiko ezartzearen ondoriozko erregulaziotik– erraztu zuen NFKAk 128 milioi euroko zor-amortizazio aurreratua egin zezan 2018an.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 158,14 milioikoa da, eta ehuneko 56 jaitsi da 2017koarekin alderatuta.

- 2018ko abenduaren 31n, Foru Komunitatearen finantza-zorra 3.085,35 milioikoa zen: 2.779,87 milioi epe luzeko zor gisa sailkatuta eta 305,48 milioi epe laburreko zor gisa. Zenbateko horrek adierazten du 2017koaren aldean ehuneko bosteko (172,75 milioi) jaitsiera egon dela, eta ekitaldiko diru-sarreraren arrunten ehuneko 80 dela.

• 2018ko finantzaketaren egitura aldatu egin da 2017koarekin alderatuta, eta diru-sarrera propioen ekarpena handiagoa da zorpetzearen ekarpenarekin alderatuta, hurrengo taulan erakusten den bezala:

Diru-sarrerak	Zenbatekoa, 2017	%	Zenbatekoa, 2018	%	Aldea (%) 2018/2017
Propioak	3.841.506	85	3.787.387	92	-1
Zorduntzea	498.008	11	208.058	5	-58
Transferentziak	188.719	4	107.218	3	-43

• Tributuen bidezko diru-bilketa likidoa 3.482,95 milioikoa izan zen 2018an, 2017koa baino ehuneko bost handiagoa; zenbateko horrek Nafarroako BPGaren¹ ehuneko 17 egiten du.

• Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, 2018an, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako eta kontabilitate nazionaleko terminoetan, ezarrita dauden betekizun guztiak bete zituen, aurreko urtean ez bezala, orduan ez baitzuen gastu-araua bete.

Azken batean, NFKAren eta haren erakunde autonomoen finantza egoerak –adierazle ekonomiko-finantzarioetan nolabaiteko okertze bat izan badu ere aipatutako zorraren amortizazio aurreratua dela eta– hobekuntza-sintomak badauzka beste arlo batzuetan. Nahiz eta NFKAk jarraitzen duen kanpoko finantzaketara jotzen aurreko pasibo finantzarioen mugaeguneratzeei aurre egiteko, bere finantzaketa-egiturak hobera egin du eta zorpetzetik independenteagoa da; hala eta guztiz ere, mendekotasun nabarmena dago bi alderdi hauek direla eta: zorraren amortizazio-egutegia eta finantza-merkatuen interes-tasen bilakaera.

III.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin

NFKAko departamentuek Kontu-hartze Zerbitzuari emandako informazioaren arabera, kalkulatu dugu 2. kapituluko –ondasun eta zerbitzu arruntak– gastuaren ehuneko 30,27 (190,52 milioi) badagokiela indarraldia amaituta duten edo kontratu-euskarri ezagunik ez duten kontratuetan oinarrituta ordaindu diren prestazioei.

Legedia betetzeari buruzko iritzia

Gure ustez, “Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” ataleko paragrafoan deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako NFKAren eta haren EEAren 2018ko ekitaldiko urteko kontu orokorretan islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

¹ Nafarroako 2018ko BPGa 20.555 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera).

IV. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2018KO EKITALDIKO KONTUEN LABURPENA

Ondoren, NFKAren eta haren EEEAen 2018ko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenen laburpena aurkezten dugu.

IV.1 2018ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2018ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.248.514	14.953	1.263.467	1.253.174	99	1.253.174
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	653.821	3.571	657.392	629.415	96	578.296
Finantza-gastuak	90.704	11.395	102.099	96.305	94	96.305
Transferentzia arruntak	1.536.826	15.377	1.552.203	1.513.873	98	1.487.020
Luzapenerako edo kontingentziatarako funtsa	11.764	-8.422	3.342	0	0	0
Inbertsio errealak	161.929	15.088	177.017	152.456	86	108.470
Kapital-transferentziak	186.247	40.472	226.719	133.895	59	101.766
Finantza-aktiboak	29.182	0	29.182	27.399	94	27.399
Finantza-pasiboak	245.148	128.000	373.148	373.148	100	373.148
Guztira	4.164.135	220.434	4.384.569	4.179.665	95	4.025.578

2018ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzea (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.708.175	0	1.708.175	1.739.788	102	1.677.120
Zeharkako zergak	1.889.459	0	1.889.459	1.870.161	99	1.768.714
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	99.530	5.212	104.742	143.961	137	99.276
Transferentzia arruntak	48.914	5.496	54.410	77.598	143	65.171
Ondare bidezko diru-sarrerak	5.893	0	5.893	10.573	179	3.433
Inbertsio errealen besterentzea	360	449	809	1.293	160	1.293
Kapital-transferentziak	22.387	26	22.413	29.620	132	14.531
Finantza-aktiboak	46.131	209.251	255.382	21.612	8	19.989
Finantza-pasiboak	343.286	0	343.286	208.058	61	208.058
Guztira	4.164.135	220.434	4.384.569	4.102.664	94	3.857.585

IV.2. 2018ko AURREKONTU-EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1 Eragiketa arruntak	3.842.081	3.492.767	349.314
2. Kapital-eragiketak	30.913	286.351	-255.438
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	21.612	27.399	-5.787
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza	3.894.606	3.806.517	88.089
II. Finantza-pasiboen alde garbia	208.058	373.148	-165.090
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa			-77.001
4. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebeharrak aitortuak			141.006
5. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebeharrak aitortuak			0
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			8.668
7. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			34.137
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5+6-7)			38.536

IV.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2018ko ABENDUAREN 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak	228.556.002
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	865.456.076
Diru-bilketa zaileko eskubideak	504.802.981
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea	76.405.564
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	59.914.611
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	6.963.784
Diru-bilketa zaileko eskubideak	6.885.866
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	4.281.231
Diru-bilketa zaileko eskubideak	136.067
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	0,004
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	349.074.747
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.736.053
Aurrekontuz kanpoko gastuak	22.713.894
+ Funts likidoak	437.481.022
Diruzaintza-gerakina, guztira	291.512.330
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	63.384.849
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	33.126.195
PFEZren % 0,7ri atxikitako diruzaintza-gerakina	1.311.912
Diruzaintza-gerakina Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak (TIP)	25.706.085
Diruzaintza-gerakina Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren gainerako inbertsioak	9.840.000
Atxikitako diruzaintza-gerakina	133.369.041
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	158.143.289

IV.4. 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
A) Ibilgetua	2.900.098.555	2.806.341.257
III. Ibilgetu materialak	2.351.988.702	2.269.837.824
1. Lursailak eta eraikinak	1.568.437.784	1.527.036.478
2. Instalazio teknikoak eta makineria	75.821.696	71.075.757
3. Tresneria eta altzariak	423.506.010	401.916.231
4. Bestelako ibilgetua	284.223.212	269.809.358
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	548.109.853	536.503.433
1. Epe luzeko baloreen zorroa	540.187.256	540.187.256
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	81.104.818	74.066.473
4. (Hornidurak)	-73.182.221	-77.750.295
C) Aktibo zirkulatzailerak	859.280.088	948.197.150
I. Izakinak	17.479.436	18.623.835
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	17.479.436	18.623.835
II. Zordunak	404.301.955	298.419.502
1. Aurrekontuko zordunak	911.863.312	804.754.661
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	95.394	107.883
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazio-zeagatikoko zordunak	3.145.819	365.696
5. Bestelako zordunak	5.362.363	5.527.761
6. (Hornidurak)	-516.164.933	-512.336.499
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	17.675	18.024
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	17.675	18.024
IV. Diruzaintza	437.481.022	631.135.789
Aktiboa, guztira (A+C)	3.759.378.643	3.754.538.406

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
A) Funtz propioak	120.596.840	-19.518.265
I. Ondarea	-301.388.648	-247.812.397
1. Ondarea	-301.388.648	-247.812.397
III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	281.867.668	-53.576.251
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	281.867.668	-53.576.251
IV. Ekitaldiko emaitzak	140.117.820	281.870.383
C) Epe luzeko hartzekodunak	2.791.150.940	2.979.579.541
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.271.332.240	1.359.560.412
1. Obligazioak eta bonuak	1.271.332.240	1.359.560.412
II. Epe luzeko bestelako zorrak	1.519.818.700	1.620.019.129
2. Bestelako zorrak	1.519.417.946	1.619.574.611
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	400.754	444.518
D) Epe laburreko hartzekodunak	847.630.863	794.477.130
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	305.485.752	289.839.293
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	181.565.251	271.973.534
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	123.920.501	17.865.759
III. Hartzekodunak	542.145.111	504.637.837
1. Aurrekontuko hartzekodunak	387.168.224	441.052.086
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administrazio-zeagatikoko hartzekodunak	7.645.149	6.838.127
4. Administrazio publikoak	3.629.934	3.458.494
5. Beste hartzekodunak	139.606.338	50.417.867
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	4.095.466	2.871.262
Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)	3.759.378.643	3.754.538.406

IV.5. 2018ko EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	277.280.903	261.778.494
b) Ekitaldiko kontsumoak	277.280.903	261.778.494
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.698.330.536	1.754.736.004
a) Langile gastuak	1.160.183.949	1.148.365.174
a.1) Soldatak eta ordainsariak	969.880.829	967.274.105
a.2) Gizarte-zamak	190.303.120	181.091.068
b) Gizarte-prestazioak	94.132.772	89.920.091
d) Trafiko horniduretako aldeak	3.868.238	26.863.753
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	3.868.238	26.863.753
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	351.346.325	325.307.855
e.1) Kanpoko zerbitzuak	348.169.534	321.828.275
e.2) Tributuak	74.638	53.290
e.3) Askotariko gastuak	3.102.153	3.426.290
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	88.799.252	87.416.289
f.1) Zorreatik	88.799.252	87.416.289
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldaketa	0	76.862.843
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	1.656.800.893	1.609.563.473
a) Transferentzia arruntak	1.514.034.538	1.493.151.981
c) Kapital-transferentziak	142.766.355	116.411.492
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	105.383.245	85.169.951
c) Aparteko gastuak	68.589.816	64.917.079
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	36.793.429	20.252.871
Saldo hartzekoduna (aurrekia)	140.117.820	281.870.383
Zorra, guztira	3.877.913.397	3.993.118.304

(eurotan)		
Hartzeko	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
1 Ohiko kudeaketako diru-sarrerak	3.636.112.686	3.685.624.451
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	3.622.999.309	3.671.213.295
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.363.412.607	1.288.708.418
a.2) Sozietateen gaineko zerga	223.538.101	303.958.016
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	56.503.456	45.771.673
a.4) Ondarearen gaineko zerga	37.872.842	39.037.444
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	58.356.289	48.549.460
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta EJDen gaineko zerga	68.746.535	54.504.939
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.269.587.450	1.306.835.866
a.11) Zerga bereziak	531.018.571	571.050.823
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	13.963.458	12.796.656
b) Kotizazio sozialak	1.684.368	1.882.556
c) Zerbitzu-emateak	11.429.009	12.528.600
c.1) Zerbitzu-emateagatiko prezio publikoak	11.429.009	12.528.600
2. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	130.645.926	108.718.363
a) Diru-itzultzeak	11.967.925	11.377.652
b) Salmentak eta zerbitzu-emateak	42.984.947	40.520.721
c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	40.859.410	40.525.163
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	40.859.410	40.525.163
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	30.265.570	16.294.827
f.1) Beste interes batzuk	30.265.570	16.294.827
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	4.568.074	0
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	107.218.365	188.727.239
a) Transferentzia arruntak	77.597.939	178.368.109
b) Kapital-transferentziak	29.620.426	10.359.130
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	3.936.420	10.048.251
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	196.926	54.990
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	3.739.494	9.993.261
Hartzekoa, guztira	3.877.913.397	3.993.118.304

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren ohar eta iruzkin gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak. Halaber, informazio xehakaturia jasotzen du txosten honen III. epigrafean aipatutako salbuespenei buruz.

Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez NFKAren eta haren erakunde autonomoen kudeaketa ekonomiko eta administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

V.1. NAFARROAKO 2018ko AURREKONTU OROKORRAK

2017ko abenduaren 28an, 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zen, 4.164,14 milioi euroko zenbatekoarekin; kopuru hori, halere, 3.128,68 milioira jaisten da AEFILOa betetzearen eraginertarako (gastu-sabaia).

2018ko aurrekontuak badu gastuetako partiden artean kontingentzietarako funts bat, AEFILOaren eskakizunekin bat. Funts horrek, hasiera batean, 11,76 milioi euroko hornidura du, aurrekontuetan aurreikusitako ezin izan diren premia geroraezin eta eskatu ahalakoak ez direnei aurre egin ahal izateko.

Aurrekontuak ez du gastu-programen eta haien kasuko helburuen oroitidazki deskriptiborik, araudiak hala ezartzen badu ere; horri dagokionez, ildo estrategikoen deskribapen-dokumentu bat ageri da, zeinean, oro har, ez baita balio objektiborik zehazten, ez eta ezarritako lerro bakoi-zerako adierazlerik ere, halakorik badago.

Aurrekontu-aldaketak

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko bosteko igoera garbia izan dute (220,43 milioi euro) aldaketen bitartez, eta kreditu bateratuak 4.384,57 milioioak izatera iritsi dira.

Honako hauek izan ziren 2018an onetsitako aldaketak:

(euroak, milakotan)		
Aurrekontu-aldaketak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	146.252	48.169
Kreditu sorkuntza	7.716	0
Kredituak sartzea	30.920	8.153
Kreditu-osagarriak	0	3.100
Aparteko kredituak	35.546	1.633
Guztira, 2018	220.434	61.055

Aurreko taulan, ez dira kreditu-transferentziak sartzen, zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezkotasun txostenak egin zituen Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu du organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen guztizko zenbatekoak 262,53 milioi egin zuen.

Bere aldetik, aurreikusitako Kontingentzia Funttsaren ehuneko 72 erabili zen (8,42 milioi euro), epai judizialestatik heldutako betebeharrak finantzatzeko: funtsean, behar horiek lotuta daude langile funtzionarioen eta araubide administratiboan kontratatutako langileen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzearekin, eta O-NOZi prestazio hori itzuli baino lehen Nafarroako Ospitaleguneko elikadura-zerbitzua ematen zuen enpresan lan egiten zuten langileekin; halaber, funtsaren zati bat erabili zen Montepioko klase pasiboetako pentsioen kostuaren ustekabeko igoerari eta 2018ko uztailearen 1etik aurrerako eraginekin onetsitako soldata-kostuari aurre egiteko.

2018ko abenduaren 31n baliagarri ez dauden kredituek 2,51 milioi euro egiten dute, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari (1,29 milioi) eta Garapen Ekonomikorako Departamentuari (1,22 milioi) dagozkie.

Aurrekontuaren likidazioa

Gastuen kreditu bateratuek 4.384,57 milioi egiten dute, aurreko paragrafoetan aipatutako aldaketak egin ondoren. 2018an aitortutako betebeharrak 4.179,67 milioi euro egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajea ehuneko 95 da bi kasuetan.

Aitortutako eskubide garbiek 4.102,66 milioi euro egiten dute, eta betetze- eta kobrantza-maila ehuneko 94 dira.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 2018an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa 2017	Zenbatekoa 2018	Finantzabidea	Zenbatekoa 2017	Zenbatekoa 2018
Langileak	31	30	Tributu bidezko diru-sarrerak	81	88
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15	15	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	4	3
Transferentzien bidezko gastuak	40	39	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	4	4
Inbertsio errealak	3	4	Zorduntzea	11	5
Finantza-zama	9	11			
Finantza-aktiboak	2	1			
	100	100		100	100

Ikusi den bezala, 2018an, gastuaren egiturak, oro har, ez du aldaketa aipagarriarik, nahiz eta finantza-zamak ehuneko bi egin duen gora.

Finantzaketari dagokionez, tributu bidezko diru-sarrek guztizkoan duten garrantziak nabarmen egin du gora, ehuneko zazpi hain zuzen; zorpetzearen ekarpenak, berriz, sei puntu egin du behera.

2018ko aurrekontu-gastua, bere helburuari edo egitekoari erreparatuta, honako hau izan zen:

(euroak, milakotan)


Gastu-politika	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aitortutako betebeharrak, 2018	2018ko aitortutako betebeharrak guztien gainean (%)	2018/2017 aldea (%)
Oinarrizko zerbitzu publikoak	124.482	132.002	3,1	6
Justizia	28.254	30.421	0,7	8
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	87.501	90.990	2,1	4
Atzerri-politika	8.727	10.591	0,3	21
Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	496.688	541.887	13,0	9
Pentsioak	104.000	108.478	2,5	4
Bestelako prestazio ekonomikoak	2.289	2.455	0,1	7
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	302.283	329.633	7,9	9
Enpleguaren sustapena	39.239	48.937	1,2	25
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	48.877	52.384	1,3	7
Lehentasunezko izaera duten ondasun publikoen	1.700.637	1.775.194	42,5	4
Osasuna	1.017.696	1.064.295	25,5	5
Hezkuntza	634.791	652.213	15,6	3
Kultura	48.150	58.686	1,4	22
Jarduketa ekonomikoak	351.276	361.892	8,7	3
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	77.560	85.054	2,0	10
Industria eta energia	14.275	17.604	0,4	23
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	7.161	8.207	0,2	15
Garraiorako dirulaguntzak	26.136	27.289	0,7	4
Azpiegiturak	147.997	166.737	4,0	13
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	71.957	45.894	1,1	-36
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	6.190	11.107	0,3	79
Jarduketa orokorrak:	1.310.672	1.368.690	32,7	4
Goi-zuzendaritza	18.455	18.626	0,4	1
Zerbitzu orokorrak	130.651	70.487	1,6	-46
Finantza eta tributu administrazioa	17.688	19.163	0,5	8
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.	511.393	529.873	12,7	4
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	9.350	8.350	0,2	-11
Toki-administrazioentzako transferentziak	241.932	254.811	6,1	5
Zor publikoa	381.203	467.380	11,2	23
Guztira	3.983.755	4.179.665	100	5

2018an, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Hezkuntzaren arloko gastuak, zeinek guztizko gastuaren ehuneko 26 eta 16 egiten baitute hurrenez hurren. Gainera, azpimarratu nahi ditugu Estatuarekiko Hitzarmena, zor publikoa eta gizarte-zerbitzuak zein gizarte-sustapeneko zerbitzuak, zeinek ehuneko 13, 11 eta zortzi egiten baitute, hurrenez hurren.

2017arekin alderatuta, ikusten da gastu batzuetan igoera nabarmenak izan direla: esate baterako, enpleguaren sustapenak ehuneko 25eko igoera izan du; zor publikoak, ehuneko 23koa; kulturak, ehuneko 22koa, eta izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuen gisara katalogatutako gastuek, berriz, ehuneko 79koa. Bestetik, gutxitu diren gastu bakarrak honako hauei dagozkienak dira: ikerketari, garapenari eta berrikuntzari dagozkienak, ehuneko 36 jaitsi baitira; zerbitzu orokorreari dagozkienak, ehuneko 46 jaitsi baitira, eta Estatuarekiko beste itun batzuei dagozkienak, ehuneko 11 gutxitu baitira.

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken arabera multzokatuz gero –oinarrizko gastu publikoak, gastu sozialak (babeseko eta gizarte sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko izaera

duten ondasunen ekoizpena), izaera ekonomikoko jarduketak eta jarduketa orokorrak–, honako hau da 2018ko gastuaren banaketa:



2017tik 2018ra aipatutako aldaketak gertatu badira ere, aipatutako politiken arteko gastu-banaketaren portzentajeak bi ekitaldietan berdinak dira.

Hurrengo taulan, 2017rako eta 2018rako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazleen multzo baten alderaketa bat erakusten dugu:

(euroak, milakotan)

Adierazlea	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Gastua, guztira	3.983.755	4.179.665	5
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	3.404.624	3.492.767	3
Funtzionamendu gastuak (1,2 eta 4. kapituluak)	3.313.753	3.396.462	2
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	226.272	286.351	27
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	352.859	400.547	14
Diru-sarrerak, guztira	4.528.234	4.102.664	-9
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.971.145	3.842.080	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak)	3.673.881	3.626.622	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehuneko)	108	104	-4
Tributuen diru-bilketa likidoa*	3.682.671	3.482.954	-5
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	19,36	16,94	-13
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	10.634	30.913	191
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	546.455	229.670	-58

* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- 2018an, guztizko gastuak 4.179,67 milioioak izan dira, eta ehuneko bost egin dute gora (195,91 milioi) 2017koekin alderatuta.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak guztizkoaren ehuneko 84 dira, eta ehuneko hiru handitu dira; finantza-eragiketei dagozkienak ehuneko 10 dira, eta ehuneko 14 egin dute gora 2017koekin alderatuta; kapital-gastuek, bestetik, gainerako ehuneko seia egiten dute, eta aurreko urtekoak baino ehuneko 27 handiagoak dira.

- 2018ko diru-sarrerak, zeinak 4.102,66 milioioak baitira, ehuneko bederatzi egin dute behera 2017koekin alderatuta (425,57 milioi).

Diru-sarrera arruntek (3.842,08 milioi) ehuneko bederatzi egin zuten behera, eta horien barruan, tributu-izaerakoak (3.626,62 milioi) ehuneko bat jaitsi ziren; kapitalekoak (30,91 milioi), berriz, ehuneko 191 handitu ziren. Bestetik, finantza-eragiketetatik datozenak (229,67 milioi) ehuneko 58 gutxitu ziren.

- Tributuen bidezko diru-bilketa likidoa 3.482,95 milioioa izan zen 2018an: zenbateko hori ehuneko bost (199,72 milioi) txikiagoa da 2017koa baino.

Diru-bilketaren zenbateko hori Nafarroako BPGaren ehuneko 17 da; portzentaje hori 2017koa baino txikiagoa da, urte horretan ehuneko 19 izan baitzen.

V.2. NFKaren ETA HAREN EEAAen 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hurrengo taulan, NFKaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2017. eta 2018. urteetan²:

(euroak, milakotan)

² Kontuan hartu beharra dago ezen Nafarroako Estatuari, hitzarmen ekonomikoa dela eta, egin behar dion ekarpenari buruz 2017aren amaieran lortu zen akordioa aparteko egitate bat dela, hemen egindako alderaketak alda ditza-keena.

Adierazlea	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Aurrekontu saldo ez-finantzarioa	350.882	93.876	-73
Aurrekontu-emaizta doitua	551.411	38.536	-93
Aurrezki gordina	657.391	349.313	-47
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	384.801	469.453	22
Aurrezki garbia	272.590	-120.140	-144
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezki/aurrezki)	281.870	140.118	-50
Funts propioak	-19.518	120.597	718
NFKAren finantza-zorra*	3.258.098	3.085.360	-5
Zorrek diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko	82	80	-2
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	359.210	158.143	-56
Eratutako abalak (saldo bizia)	122.095	101.563	-17
Etorrizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	4.131.120	3.930.278	-5

* Amortizatutako kostua.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 93,88 milioikoa izan zen 2018an; zenbateko hori nabarmen jaitsi zen 2017arekin alderatuta, ehuneko 73 (257 milioi) jaitsi ere; aurrekontu-emaizta doitua, berriz, 38,54 milioikoa izan zen, eta zenbateko hori ere ehuneko 93 jaitsi da (512,88 milioi).

- 2010etik 2016ra, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak balio negatiboak izan ditu; 2018an, ordea, 158,14 milioi positiboa da, nahiz eta 2017koarekin alderatuta ehuneko 56 jaitsi den, ondoren erakusten den bezala:

(euroak, milakotan)

Magnitueda	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Diruzaintza-gerakina gastu orokorrak	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192	-184.088	-238.100	-183.622	359.210	158.143

Aurrezki gordina ehuneko 47 jaitsi da, 349,31 milioi izateraino, eta 120,14 milioiko aurrezki garbi negatiboa sortu da; balio horrek ere nabarmen egin du behera 2017koarekin alderatuta, orduan 272,59 milioi positiboa izan baitzen.

Ekitaldiko emaitzak ere behera egin zuen, eta 2017an 281,87 milioikoa izatetik 2018an 140,12 milioikoa izatera pasatu da.

Adierazle batzuetan okerrera egin den arren, beste batzuek balio positiboak izaten jarraitzen dute, eta horrek eragin du funts propioak positiboak izatera iristea –guztira, 120,60 milioi–, azken bost urteetan negatiboak izan ondoren:

(euroak, milioitan)

Magnitueda	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Funts propioak	887,86	625,33	246,53	-10,91	-97,86	-247,82	-301,68	-19,52	120,60

2018ko abenduaren 31ko finantza-zorra, kostua amortizatuta, 3.085,36 milioi eurokoa da; aurreko urtean baino ehuneko bost txikiagoa, beraz. Haren ehuneko hamarrek epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrera arrunten aldean, ehuneko 80 da; 2017an baino ehuneko bi gutxiago.

Zor garbiaren aurrekontu-bilakaera (itundutako zorra ken amortizatutako zorra) honako hau da 2010-2018 aldirako:

(euroak, milioitan)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Itundutako zorra	595,21	483,22	418,86	463,66	492,58	446,94	579,70	498,01	208,06
Amortizatutako zorra	103,21	91,23	107,26	193,21	296,53	307,23	416,08	293,93	373,15
Zor garbia	492,00	391,99	311,60	270,45	196,05	139,71	163,62	204,08	-165,09

Zor garbiaren balio handiena 2010ean izan zen, 492 milioikoa, eta ekitaldi horren ondotik, haren zenbatekoa nabarmen jaisten joaten da, eta gero, berriz, igo egin da; 2018an, aztertutako aldiaren lehenengo aldiz, amortizatutako zenbatekoa itundutakoa baino handiagoa da, eta horrek esan nahi du zor garbia 165,09 milioi negatiboa dela.

Horretaz gainera, nabarmentzekoa da 2018an itundutako zorra 2010-2018 aldiko txikiena dela, 208,06 milioikoa; eta amortizatuak, berriz, urte hauetako baliorik handiena du: 373,15 milioi.

Ganbera honen aurreko txostenetan adierazi dugun bezala, zor itunduaren eta amortizatuaren zenbateko horiek nabarmen baldintzatzen ditu zorra amortizatzeko egutegiak, txosten honen V.13. epigrafean jaso dugunak.

• Etorbizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuek 3.930,28 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 87 zorraren zama finantzarioari dagozkio. 2017ko datuekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bost egin dute behera.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(euroak, milakotan)						
Kapitulua	2019	2020	2021	Gainerakoa	Guztira	%, guztizkoaren gainean
1 Langileria-gastuak	2.233	2.225	0	0	4.458	0
2 Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	132.257	12.995	5.060	9.279	159.591	4
3. Gastu finantzarioak	66.763	59.322	49.895	208.891	384.871	10
4 Transferentzia arruntak	83.865	15.026	3.502	2.237	104.630	3
6 Inbertsio errealak	57.963	18.922	13.429	4.081	94.395	2
7 Kapital-transferentziak	93.619	16.567	3.467	1.987	115.640	3
8 Finantza-aktiboak	7.350	6.350	5.850	14.250	33.800	1
9 Finantza-pasiboak	265.989	244.936	234.117	2.287.851	3.032.893	77
Etorbizuneko ekitaldietako gastuak, guztira	710.039	376.343	315.320	2.528.576	3.930.278	100
<i>Ehuneko/urtea</i>	<i>18</i>	<i>10</i>	<i>8</i>	<i>64</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak aktuarialak, ez itzaleko bidesarrietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarrietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien zenbatekoa zein den ezin delako jakin³.

Etorbizuneko gastu-aurreikuspen horiek pasibo kontingente moduan hartzen dira, eta oroitidazkiaren kontingentzien atalean jaso dira; honako hauek dira:

(euroak, milakotan)					
Azpiegitura	2019	2020	2021	Gainerako urteak	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	16.764	17.227	17.702	314.204	365.897
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	12.101	12.579	12.910	395.660	433.250
Donejakue Bideko autobia	49.000	55.531	57.633	388.479	550.643
Pirinioetako autobia	20.403	21.540	22.360	556.520	620.823
Guztira	98.268	106.877	110.605	1.654.863	1.970.613

³ Ulertzen da haren zenbatekoa ez dela segurua, zeren eta 2017an, esate baterako, 93,44 milioi euroko gastuak zenbatetsi ondoren kopuru erreala 86,62 milioikoa izan baitzen.

Azken batean, NFKaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketatik ateratzen dugun konklusioa da nolabaiteko okertze bat gertatu dela hura definitzen duten adierazle batzuetan, eta horrek berekin dakar adierazle arruntak nahikoak ez izatea funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko, nahiz eta zorrarekin lotutako beste adierazle batzuek hobera egin duten; gainera, azken urte hauetan lehenengo aldiz, funts propioek balio positiboa izan dute, 120,60 milioikoa. Testuinguru honetan, kontuan hartu beharra dago, gainera, zenbateko handi samarra egiten duen zor bat badagoela, zeina datozen urteetan amortizatu behar baita, eta hura bai ezarritako egutegiak, bai interes-tasen aldeak nabarmen baldintzitzen dutela.

V.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, zeina kontabilitate nazionalen terminoetan (SEC'2010) mugatuta baitago, 2018an honako arau fiskalak bete behar zituen:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioa:

a) Finantzaketa-beharrek ez dute gaindituko BPGaren ehuneko 0,4a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

b) Gastu-araua: 2018ko gastu konputagarriak ez du gaindituko aurreko urteko gastuaren gaineko igoeraren ehuneko 2,4ko erreferentzia-tasa.

- Finantza-jasangarritasunaren printzipioa:

a) Zorpetze publikoaren iraunkortasuna. Zor-mailak, gehiegizko defizitaren protokoloaren (GDP) metodologiaren arabera kalkulatuak, ezin izanen du gainditu, 2018ko abenduaren 31n, BPGaren ehuneko 17,7a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

b) Merkataritza-zorren iraunkortasuna. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordaintzarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izanen da.

c) Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

c.1) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2017ko uztailaren 4ko ebazpenei jarraituz.

c.2) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira SECen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen dute gainditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5a; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen du gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko muga.

c.3) Finantza-aktiboak Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2017an helburu hori bete zuenez, betebehari ezin zaio aplikatu 2018ko ekitaldiari.

Estatuaren Kontu-hartze Orokorra da administrazio publikoaren sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko behin betiko erabakia hartzeko arduraduna.

Txosten hau idazteko egunean, aipatutako ministerioak oraindik ere ez du argitaratu Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoreak 2018an arau fiskal horiek bete dituen ala ez aztertzen duen txostena.

Ondoren, arau horien betetze-maila aztertuko dugu, NFKAk oroitidazkian emandako informazioaren arabera:

V.3.1. Aurrekontu-egonkortasuna

Finantzaketa-gaitasuna

Kontu orokorren oroitidazkian ageri den informazioaren arabera, 104,17 milioi eurokoa izan zen; zenbateko hori Nafarroako BPGaren ehuneko 0,54 da, eta, horrenbestez, araua bete egiten da. Txosten hau idazteko egunean, aipatu dugun bezala, ministerioak oraindik ez du argitaratu egitate horri buruz egin duen analisia.

Hurrengo orrialdeko taulan erakutsiko dugu finantzaketa-ahalmenaren kalkuluaren xehaketa, NFKAk kontu orokorren oroitidazkian sartutako datuak kontuan hartuta.

(euroak, milioitan)	
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen defizita	2018
I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa (diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura)	93,1
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	93,9
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	0,5
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	-1,3
II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak	9,6
NUPen barneko transferentziak	0,8
Europako funtsetako transferentziak	3
Diru-bilketa ez-segurua	-190,8
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-11,4
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	4,7
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	7,5
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	0,4
Abalen exekuzioa	0
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	105,9
Enpresen finantza-ekarpenak	-8,3
Osasunak itzultitako araua (2015ean eman zitzaion, eta defizit moduan egotzi zen)	4
Aktibo fiskal geroratuak	-10
BISaren (Berehalako Informazio Sistema) araberako doikuntza	107,8
Amancio Ortega Fundazioaren diru-sarrerak	-4
III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)	1,5
IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharra/ gaitasuna (letik IIIra)	104,2
BPG erregionalaren gaineko finantzaketa behararen ehunekoak (*)	0,51
Ezarrিতako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,4
Helburuaren gainean, gaitasuna gehiegizkoa izatea	186,4

Iturria: Nafarroako Gobernua.

Nabarmendu behar dugu 2018an NFKAk, bigarren urtez jarraian, finantzaketa-gaitasuna baduela (balio positiboa), zeren eta aurrez finantzaketa beharra islatua baitzuen (balio negatiboa), ondoren azaltzen dugun bezala:

(euroak, milioitan)									
Finantzaketa-gaitasuna	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Zenbatekoa	-564	-368	-311	-255	-149	-270	-136	221	104
%, Nafarroako BPGaren gainean	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45	-0,84	-1,48	-0,70	1,11	0,51

Halaber, aipatu nahi dugu 2018an lehenengo aldiz Berehalako Informazio Sistemaren ezarpenarekin lotutako doikuntza bat jaso dela; sistema hori ezartzeak –estatu mailan ezarri zen– eskatzen zuen enpresa handiek BEZari buruzko datuak ematea ia denbora errealean kasuko tributu-agentziari, aitortpenak aurkezteko egutegia luzatuta; Nafarroaren kasuan, egutegi-aldaketa horrek PFEZean ere izan zuen eragina, zeren eta gure erkidegoak aukera ematen baitu zerga horren atxikipenak BEZaren aitortpenen emaitza negatiboekin konpentsatzeko. Horren aurrean, bi zerga horien egutegia sinkronizatu zen, eta horrek ekarri zuen ezen, moneta- edo kutxa-terminoetan, azaroari zegokion zerga horien ordainketa urtarrilari egozte, abenduari egotzi beharrean, 2018ra arte egiten zen bezala.

Sistema hori Nafarroan aplikatzeak berekin ekarri du zentzu positiboan (107,80 milioi) doitzea BEZetik edo PFEZetik zetozen eta 2018ko azaroan sortu arren 2019ko urtarrilean kobratu ziren diru-sarrereren ondoriozko finantzaketa-gaitasuna.

Gastu-araua

NFKAren oroitidazkian jasotako datuen arabera, ministerioak ez baitu bere txostena argitaratu, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak gastu-araua bete du, zeren eta 2018an haren gastu konputagarriak ehuneko bi egin baitu gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera-tasa, berriz, ehuneko 2,4an finkatuta zegoen. Hartara:

Gastu-araua - Gastu konputagarria	2017	2018	Aldea (%) gauzatua	Aldea (%) helburua
Zenbatekoa (milioitan)	2.912	2.969	2	2,4

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa.

Hau da, gastu konputagarria 57 milioi handiagoa izan zen 2017koa baino; ezarritako igoera, berriz, ehuneko 2,4koa zen, eta 70 milioi gehiago ahalbidetzen zituen.

Horretaz gainera, aipatu beharra daukagu Zerga-erantzukizuneko Agintaritza Independentearen 2018ko uztaileko txosteneko aurreikuspena bete dela; izan ere, haren arabera, gauzagarria da NFKAk 2018rako defizit-helburuak eta gastu-araua betetzea.

Halaber, aipatu behar dugu 2017an NFKAk gastu-araua urratu zuela, eta horren ondorioz plan ekonomiko-finantzario bat egin zuela, zeina egokitzat jo baitzuen Ogasuneko Ministerioak 2019ko urtarrilaren 23an. Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeak plan hori berretsi beharra dauka. Hala eta guztiz ere, txosten hau idazteko egunean, halakorik ez da gertatu oraindik, eta halaxe aipatzen da Ogasuneko Ministerioak hiru hilez behin egiten dituen jarraipen-txostenetan.

V.3.2. Iraunkortasun finantzarioa

Zor publikoaren iraunkortasuna eta zuhurtasun finantzarioa

Zor publikoaren 2018rako helburua, gehiegizko defizitaren prozedurarako (GDP) metodologia-ren arabera kalkulatua, Estatuak eta Foru Komunitateak ehuneko 17,7an hitzartu zuten.

GDParen arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebeharrak gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazio eta bonoen, mailegu eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatuak, ez merkataritza-kredituak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2018ko abenduaren 31n, Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 3.445 milioikoa zen, erregioko BPGaren ehuneko 16,8 hain zuzen, finkatuta dagoen mugatik behera.

Zenbateko hori, zeina Nafarroako Gobernuaren informazioarekin alderatu baitugu, honela xehakatzen da:

(euroak, milioitan)

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea --Zorra GPD2018 delakoaren arabera	Guztira
Zor Publikoa	1.430
Finantza-entitateekin hartutako maileguak	1.156
EIBrekin eta PBBrekin hartutako maileguak	530
Errekurtsorik gabeko "factoring"a	24
Pirinioetako autobia eta Nafarroako Ubidea	305
2018-12-31ko zorpetzea, guztira	3.445
<i>Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoak</i>	<i>16,8</i>
<i>Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoak</i>	<i>17,7</i>
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	5.321

Iturria: Espainiako Bankua eta Nafarroako Gobernuak.

Egiaztatu dugu zorpetze-eragiketen gehieneko kostu osoak ez dituela gainditu Estatuak ezarritako mugak.

Horrenbestez, finantza-iraunkortasunaren helburua bete da zorpetze publikoa dela eta.

Zor hori ondoko taularen arabera banatzen da:

(euroak, milioitan)

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea-Zorra GPD-2018 delakoaren arabera	Guztira
Nafarroako Gobernuak	3.048
Nafarroako Gobernuaren Lankidetzak publiko-privatuak	305
Sozietate publikoak	90
Fundazio publikoak	2
2018-12-31ko zorpetzea, guztira	3.445

2010-2018 aldirako, honako hau da zorpetzearen bilakaera:

(euroak, milioitan)

Zorpetzea (GDPa)	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Zenbatekoa	1.692	2.443	2.857	3.134	3.197	3.322	3.461	3.628	3.445
%, Nafarroako BPGaren gainean	9,10	13,05	15,76	17,85	17,9	18,2	18,1	18,3	16,8

Zorrek BPGaren gainean egiten duen ehunekoak nabarmen egin zuen gora 2010-2013 aldian; 2014-2017 aldian, berriz, zenbateko horrek erritmo txikiagoan handitzen jarraitu du, baina 2018an behera egin du, ehuneko 18,3 izatetik ehuneko 16,8 izatera pasatuta.

Merkataritza-zorren iraunkortasuna

Helburu hori bete egiten da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiak ez duenean gaintzen araudian berankortasuna dela-eta ezarritako gehieneko epea. Epe hori 2018rako eta orokorrean 30 egunekoa da. Nafarroako Gobernuak hilero argitaratzen du Administrazio Publikoaren Sektorearen ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen balioa.

Hurrengo taulan, 2018ko hilez hileko ordainketaren batez besteko aldia erakusten dugu:

	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan),	
	2017	2018
Urtarrila	-3,45	-1,86
Otsaila	-5,19	-2,11
Martxoa	-2,96	-2,99
Apirila	-1,58	26,18
Maiatza	-1,67	25,53
Ekaina	-2,60	26,16
Uztaila	-2,33	28,23
Abuztua	-1,42	30,47
Iraila	-2,55	29,83
Urria	-2,74	25,74
Azaroa	-2,41	25,58
Abendua	-5,88	23,30

Iturria: Nafarroako Gobernua.

Taulako datuek 2017rako eta 2018rako ordainketaren batez besteko aldiari buruz egindako kalkulua erakusten dute; horietatik ondoriozta liteke egoerak okerrera egin duela azken ekitaldian. Hala eta guztiz ere, alde horien arrazoia 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako irizpidealdaketa da, zeina 2018ko apiriletik aurrera aplikatzekoa baita ordainketaren batez besteko aldia kalkulatzeko. Hartara, egun horretara arte, printzipio horren betetzea adierazten zuten balizko balioak -30 eta 0 bitartekoak ziren, eta hornitzaileei ordaintzearen batez besteko balio negatiboa adierazten zuten, aipatutako gehieneko epea ezarri baino lehen. Aipatutako datatik aurrera, ordea, betetzeari buruzko tarte hori aldatu egin da, eta 0 eta 30 artekoa izatera pasatu da, eta zuzenean adierazten du ordaintzen den epeari dagokion zifra.

Horrenbestez, Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak 2018an merkataritza-zorren iraunkortasun-printzipioa bete du, zeren eta soilik abuztuan gainditu baitzen 30 eguneko aldia (30,47), eta ez modu adierazgarrian. Egiaztatu dugu hornitzaileentzako ordainketetan ez dela atzerapenik gertatu, berandutza-interesik sortu duenik.

Zuhurtzia abaletan eta beste berme batzuetan

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2018ko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokienez, 109,66 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen dutenez beste pertsona fisiko edo/eta juridiko batzuei eman zaizkie –sektore hori SEC'2010 delakoaren arabera definituta–; halaber, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legeak 50 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu.

Horrenbestez, abalen zenbatekoa 159,66 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,53 egiten du; portzentaje hori legeriak aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago; horrenbestez, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

Honako hau da **konklusioa**: Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2018ko ekitaldian finantzaketa-beharren bolumenarekin, gastu-arauarekin eta finantza-egonkortasunarekin lotutako helburu guztiak bete ditu.

V.4. KONTUEN GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2017ko kontu orokorrei buruz egindako txostenari dagokionez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Lan egiten ari da NZOren kontabilitate-sistemak egokitzeko, horren bidez diru-sarreraren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.*

Indarrean jarraitzen dute Ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako honako oinarritzko gomendio hauek:

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*

- *Balantzean islatzea foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.*

- *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorren betekizunei jarraituz. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu edo erantsi behar zaio.*

- *Ogasun Publikoari buruzko Legean araututako aurrekontu-luzapenerako prozedura garatzea, eta egokia den aztertzea, betiere Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen eskakizunak jasoz.*

- *Kontu orokorren oroitidazkian sartzeari ekitaldiaren itxieren ondorengo datu garrantzitsuenak.*

- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

- *Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.*

V.5. LANGILE-GASTUAK

2018an, langile-gastuak 1.253,17 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 30, hain zuzen. Ehuneko 43 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 17, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuari.

Gastu horiek honela daude banatuta, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Langile-gastuak	(euroak, milakotan)		
	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Goi-karguak	3.310	3.109	-6
Behin-behineko langileak.	2.658	2.766	4
Lanpostuko ordainsariak	744.749	780.546	5
Langileen ordainsariak	122.311	123.464	1
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	270.868	284.275	5
Ordainsari aldakorak	52.842	56.051	6
Beste hainbat ordainsari	40.844	2.963	-93
1. kapitulua, guztira	1.237.582	1.253.174	1

2017arekin alderatuta, langile-gastuak ia berdin mantendu ziren, ehuneko bat igo baitziren (15,59 milioi); oro har, kontzeptu ekonomikoaren arabera aldeak positiboak dira, salbu eta "bestelako ordainsarien" kasuan, zeinak ehuneko 93 jaitsi baitziren, neurri handi batean 2017an itzuli zelako 2012an kendutako aparteko ordainsariaren zati bat, bai eta "goi-karguak" kontzep-

tuarengatik ere, zeren eta haien ordainsariak ehuneko sei jaitsi baitziren, 2017an kargua utzi ondorengo ordainketak egon baitziren, 2018an ez bezala.

Langile-gastuaren egiaztapenak

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gas-tua bat datorren SAPGE'21ean aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat dato-zela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak.

Langile-arloari buruzko gure fiskalizazioaren norainokoa zabaldu dugu, eta, hartara, planti-llako beren jatorrizko lanpostua betetzen ari diren NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langile finkoen 2018ko abenduko nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu – justiziako langileak salbuetsita–, betiere haien nominan beharpenik ekar dezakeen inongo kontzepturik ez zegoenean (gaixotasun-bajak eta abarrekoak).

Zehazki, honako hauek aztertu ditugu: ezarritako portzentaje finko baten arabera aplikatzen diren 21 nomina-kontzeptu (lanpostu-osagarria, lanaldi-luzapeneko osagarria, arduraldi esklusiboko osagarria eta abar), oinarrizko soldatari dagozkion bi nomina-kontzeptuak, osasun arloak berezko dituen bateraezintasuneko osagarria eta esklusibotasun osagarria, eta destinoko osag-aria, zeina, halaber, administrazioaren zati horri baitzaio aplikatzekoa.

Horrek ekarri du 10.902 pertsonari dagozkien 32.359 erregistro aztertzea; guztira, 23,81 milioi euroko zenbatekoa. Kopuru hori aztertutako langileen abenduko nomina osoaren ehuneko 35 da.

Egiaztatu dugu aztertutako langileek egoki jaso dituztela aztertutako ordainsari-kontzeptu guz-tiak, plantillan ezarritakoari jarraituz.

Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa

NFKAren eta haren EEAAn 2018ko abenduaren 31ko plantilla organikoa eta langile finkoen eta behin-behineko langileen zerranda Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justi-ziako kontseilariaren uztailaren 2ko 88/2019 Foru Aginduaren bidez argitaratu ziren, 2019ko uz-tailaren 23ko NAOn.

Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, nabarmentzen du 2018ko plantilla organikoa atzerapenez argitaratu zela (2019ko uztailan).

2018ko abenduaren 31ko plantilla organikoko lanpostuak 23.349 ziren: 2017an baino 432 lan-postu gehiago dira. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Betetako lanpostuak	4.766	4.671	5.671	5.576	6.139	6.024	16.576	16.271
Hutsak	1.586	1.757	2.122	2.481	2.633	2.840	6.341	7.078
Deitutako lanpos-tuak	6.352	6.428	7.793	8.057	8.772	8.864	22.917	23.349

Lanpostuen ehuneko 38 O-NOZi dagozkio; ehuneko 35 Hezkuntzari, eta gainerako ehuneko 27a Administrazio Erroari. Lanpostu guztietatik, ehuneko 70 beteta daude eta ehuneko 30 hutsik dago.

2018an betetako lanpostuen kopurua, tipologiari begiratuta, honela banatzen da:

Betetako lanpostu mota	2017	2018	
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak	111	115
	Burutzak	1.517	1.508
Oinarrizko lanpostuak	14.948	14.648	
Betetako lanpostuak, guztira	16.576	16.271	

2017arekin alderatuta, portzentajeen alde aipagarriena behin-behineko langileei dagozkien eta oinarrizkoak ez diren lanpostuetan ageri da, lanpostu horiek ehuneko lau hazi baitziren 2018an; hau da, lau lanpostu. Bestetik, oinarrizko lanpostuek ehuneko bi egin zuten behera (300 lanpostu).

Kontu orokorren oroitidazkian ageri den moduan, 2.395 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzaren zatiko zerbitzu bereziak, sakontzea edo ikerketa, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2017	2018
Lanpostuak, guztira	22.917	23.349
Hutsak	6.341	7.078
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	28	30
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	3.916	4.292
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	62	61

2018an, lanpostu guztien ehuneko 30 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 61 aldi baterako beteta zeuden. 2017an, portzentaje horiek ehuneko 28 eta ehuneko 62 ziren, hurrenez hurren.

Egiaztatu dugu ezen plantilla organikoan jasotako datuak eta horri buruz Kontu Orokorretako oroitidazkian emandako informazioa bat datozela, Administrazioan zerbitzu-eginkizunetan jarduten duten pertsonen kopuruari dagokionean izan ezik. Izan ere, oroitidazkiaren arabera 429 dira eta plantillak, berriz, dio 471 direla egoera horretan dauden pertsonak.

Gobernuak, zenbait foru dekreturen bidez, plantillaren 19 aldaketa onetsi zituen, 48 lanpostu amortizatzeke (Administrazio Erroko 44, osasun arloko bi eta Hezkuntza Departamentuko bi) eta 153 lanpostu sortzeko (111 Administrazio Erroko, 31 Osasun Departamenturako eta 11 Hezkuntzarako). Gainera, egiturazko enplegua finkatzeko, 255 lanpostu sortu ziren hezkuntzaren arloan, 54 lanpostu osasunaren arloan eta 12 Administrazio Erroan. Bestetik, bederatzi lanpostu sortu ziren Nafarroako Ospitaleguneko elikadura-zerbitzua berriz publiko bihurtzearekin lortutako epaien ondorioz, eta lanpostu bat, berriz, 68/2009 Foru Dekretuaren 7. artikulua aplikatzearen ondorioz.

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak plantillan jaso direla.

2018an zehar, sei foru dekreturen bidez, lan-eskaintza publiko (LEP) partzial bat onetsi zen, 2.912 lanpostukoa; hona hemen xehakatzeara:

LEParen arrazoia eta haren esparrua	Zenbat lanpostu
Egonkortze-tasa:	2.137
Unibertsitatekoak ez diren irakasleak, NFKA	1.141
O-NOZeko eta NOPLOiko osasun-langileak	635
NFKAko administrazio erroko langileak	361
Berrezarpen-tasa:	751
O-NOZeko eta NOPLOiko osasun-langileak	236
Unibertsitatekoak ez diren irakasleak, NFKA	326
NFKAko administrazio erroko langileak	189
Barne sustapena	24
2018ko LEPerako lanpostuak, guztira	2.912

Ikusi denez, 2.912 lanpostuetatik, 1.467 lanpostu (ehuneko 50) hezkuntzaren esparrukoak dira, 871 lanpostu (ehuneko 30) osasunaren esparrukoak eta gainerako 574ak (ehuneko 20) Administrazio Erroaren esparrukoak.

Eskaintza horiek onetsi zituzten foru dekretuetan ez zen zehazten ez aurreikusitako egutegia, ez deialdiak egiteko datak ere. Dena den,

NFKAren web-orrian, informazioa ematen zen Osasun Departamentuko lanpostuei buruz eta Administrazio Erroko lanpostuei buruz.

Berrezarpen-tasa eta egonkortze-tasa

Aztertu dugu berrezarpen-tasa aplikatzearen ondoriozko lanpostuak 2016-2018 aldiko LEPetan jaso diren, eta honako hau da emaitza:

	2016	2017	2018
Araudiaren arabera posible diren lanpostuen kopurua (a)	570	571	751
LEPeant jaso diren lanpostuen kopurua (b)	559	566	751
(a) – (b) aldea	11	5	0

Aldi osoa hartuta, LEPetan aplikatzea den araudiaren arabera ahal zirenak baino 16 lanpostu gutxiago jaso dira.

2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legean araututako egonkortze-tasa 2018ko LEPean aplikatzeari dagokionez, esan behar da lanpostu batzuk jaso zirela arrazoi hori dela eta. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako datuen arabera, 2.375 lanpostu zeuden araudian ezarritako irizpideak eta Estatuarekin adostutakoak betetzen zituztenak.

2.375 lanpostu horiek hartuta, egiaztatu ahal izan dugu 2.173k eskatutako irizpideak betetzen zitzutela; gainerako 202ak direla eta, ezin izan dugu egiaztapen hori egin, eta ezin izan dugu aztertu, ezta ere, lanpostu gehiagorik ba ote zegoen, hasierako 2.375 lanpostuez gainerakoak, informazio-sistemetan arazoak zeudelako eta lanpostuak jasotzeko arrazoiari buruzko euskarri dokumentalik ez zegoelako. Lanpostu horien egokitasunari buruzko azterketak eskatuko luke espedienteak banaka-banaka aztertu behar izatea, eta horrek asko atzeratuko luke txosten hau.

Azkenik, esan behar dugu ezen, txosten hau idazteko egunean, 2018ko LEPetik 1.633 lanpostu daudela deitu gabe; honako hauek dira: Osasun arloko 655 lanpostu, Administrazio Erroko 244 lanpostu eta Hezkuntzako 734 lanpostu.

Aurreko urteetako LEPei dagokionez, 69 lanpostu faltako lirateke deitzeko, eta guztiak 2017ko eskaintzari dagozkie.

Nafarroako administrazio publikoetako langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa

2014-2018 aldiko langile finkoen alten eta bajen kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazioiko behin betiko bajak) eta bikoiztutako zortzi erregistro kenduta, eta honako hauek dira emaitzak:

	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Altak:	87	95	30	296	148	656
Hezkuntza	16	52	8	238	15	329
Osasuna	55	8	4	48	34	149
Administrazio Erroa	16	35	18	10	99	178
Bajak:	519	719	570	764	680	3.252
Hezkuntza	189	355	211	374	322	1.451
Osasuna	211	243	241	241	242	1.178
Administrazio Erroa	119	121	118	149	116	623
Alde garbia (altak-bajak)	-432	-624	-540	-468	-532	-2.596

Aipatutako aurrekariekin, ikusten da, alde garbi negatiboa dagoela 2014-2018 aldirian, 2.596 pertsonarena; urteko batez bestekoa 519 pertsonarena da. Egitate hori, zati batean, Estatuko oinarriko araudiak baldintzatuta dago, langileen berrezarpena mugatzen baitzuen.

Halaber, lortu dugu 2014-2018 urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langileen datua, eta horiek langile finkoen eta aldi baterakoeren artean sailkatu ditugu, NFKA osoaren data horretako langileen behin-behinekotasunaren adierazlea lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2014	2015	2016	2017	2018
Egiazko langileak	26.307	26.697	26.851	28.025	28.801
Langile finkoak	17.074	16.423	16.059	15.369	15.113
Aldi baterako langileak	9.233	10.274	10.792	12.656	13.688
Aldi baterako langileak/benetako langileak (%)	35	38	40	45	48

Ikusten denez, aipatutako datako behin-behinekotasun adierazlea nabarmen handitu da aztertutako aldiaren, eta 2014an ehuneko 35 izatetik 2018an ehuneko 48 izatera pasatu dira.

Honako hau da 2016-2018 aldiko abenduaren 31n lanean ari ziren NFKAko langileen esparruaren araberrako sailkapena:

	Langile finkoak			Aldi baterako langileak			Langileak, guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Hezkuntza	5.831	5.430	5.350	3.563	4.318	4.808	9.394	9.748	10.158	38	44	47
O-NOZ	5.572	5.419	5.287	5.781	6.639	7.089	11.353	12.058	12.376	51	55	57
Administrazio Erroa	4.656	4.520	4.476	1.448	1.699	1.791	6.104	6.219	6.267	24	27	29
Guztira	16.059	15.369	15.113	10.792	12.656	13.688	26.851	28.025	28.801	40	45	48

Behin-behinekotasunaren indizea goranzkoa da NFKAko esparru guztietan, baina txikiagoa da Administrazio Erroan, bertan ehuneko 29koa baita 2018an; O-NOZen, ordea, oso altua da, ehuneko 57koa.

Bestetik, 2014-2018 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte baizitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2014		2015		2016		2017		2018	
	Pertsonak	guztizkoaren gainean (%)	Pertsonak	guztizkoaren gainean (%)	Pertsonak	guztizkoaren gainean (%)	Pertsonak	guztizkoaren gainean (%)	Pertsonak	guztizkoaren gainean (%)
30 urtetik beherakoak	276	2	188	1	201	1	130	1	153	1
31 eta 40 urte bitarte	3.306	19	2.904	18	2.616	16	2.215	14	2.000	13
41 eta 50 urte bitarte	6.098	36	5.785	35	5.558	35	5.290	34	5.224	35
51 eta 55 urte bitarte	3.448	20	3.542	22	3.561	22	3.490	23	3.409	23
55 urtetik gorakoak	3.946	23	4.004	24	4.123	26	4.244	28	4.327	29
Batez besteko adina	48	-	49	-	49	-	50	-	50	-

Nabarmendu behar dugu 50 urtetik gorako langileak 2014an ehuneko 43 izatetik 2018an ehuneko 52 izatera pasatu direla; halaber, 60 urtetik gorako pertsonak 2014an ehuneko bost izatetik 2018an ehuneko zortzi izatera pasatu dira. Bestetik, 40 urtetik beherako adina duten langileak ehuneko 21 ziren 2014an eta ehuneko 14, berriz, 2018an.

Azken batean, konklusioa izan daiteke pertsona finkoen kopuruak behera egin duela; behin betiko bajak ez direla betetzen; egiturazko beharrak eta behar iraunkorrak aldi baterako langileekin betetzen direla, eta lanpostu hutsen kopuruak gora egin duela; horrek eragin du ezen, herritarri zerbitzuak ematen jarraitzeko beharraren aurrean, gora egin duela NFKAko enpleguaren behin-behinekotasunak, eta gehiegizkoa den adierazle kezkarri batera iritsi dela; hartara, giza

faktorearen halako deskapitalizazio bat eta plantillaren zahartze bat gertatu dira, horrek ekar ditzakeen arazoekin. Horri buruz azpimarratu behar dugu kasuko LEPak argitaratu egin direla jada, eta deialdi batzuk egin direla; horiek, izan ere, aipatutako adierazleak hobetuko dituzte, nahiz eta oraindik ere ez diren aurreikusitako lanpostu guztietarako deialdiak egin.

Nafarroako Gobernuaren erretiro-gastuen aurreikuspena

Ganbera honek aurreko txosten batzuetan jada adierazi duen bezala, 2013ko martxoan Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen Nafarroako Gobernuaren pentsio-gastuen aurreikuspenari buruz, NFKAren Montepioari dagozkion pentsio arrunten aurrekontua egiteko.

Azterlanak 2006-2012 aldirako datu errealak erabiltzen zituen; gainerako urteetarako, urteko gastuaren zenbatespenak egiten dira euro konstantetan, 2013-2087 aldirako parametro batzuen arabera.

Azterlan horren arabera, 2087ra bitarte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 milioi euro konstantekoa da; zenbateko horretatik, aurreikusita dago ehuneko 77 pentsiodunei ordaintzea eta gainerako ehuneko 23a, berriz, gainerako onuradunei.

2018an, pentsioen benetako gastuak 94,04 milioi euro egin zuen guztira; zenbatespena, berriz, 81,79 milioi konstantekoa zen.

2019-2087 aldirako, kalkulaturako kostuak 1.898 milioi euro konstante egiten du.

Gure gomendioak:

- *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako denbora-aurreikuspena dagoen eskainitako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*

- *Urgentziaz behar diren neurriak ezartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko, araudiaren testuinguruan.*

V.6. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2018ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 629,42 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 15 egiten dute; horietatik ehuneko 52 Osasun Departamentuari dagozkio, eta ehuneko 18, berriz, Eskubide Sozialetako Departamentuari. Ekitaldiaren itxieran, gastu horien ehuneko 92 ordainduta zeuden.

2017ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko zazpi egin zuten gora. Nabarmentzekoa da gizarte zerbitzuen zorroaren kudeaketarekin lotutako kontzeptu batzuetan gertatu den gorakada, ehuneko 17koa (15 milioi), eta materialak erostearekin eta hornidurekin lotutakoaren igoera, ehuneko seikoa (21 milioi).

Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuaren kontroleko planak gastuen gaineko kontrol finantzario iraunkorra egitea jasotzen du honako arlo hauetan: osasun hornidurak, sendagaiak, osasun itunak, protesiak eta farmazia prestazioak, aurretiko fiskalizaziotik salbuesita baitaude. Gastu horiek 374,51 milioi euro egin zuten 2018an. Halaber, plan honek jaso egin zuen fiskalizaziotik salbuesita dauden bestelako gastu eta kontratu txikien -93,80 milioi- gaineko kontrola.

Aberaste bidegabearen egoeran kontratatzea

Ganbera honek 2017ko kontu orokorre buruz egindako txostenak salbuespen bat jasotzen zuen, indarraldia amaituta zeukaten kontratueta oinarritutako prestazioekin lotutako aurrekontu-gastuak egiteari zegokiona.

Bai kontratu-kopurua, bai metatutako zenbatekoa garrantzitsuak zirenez, egoera horren jarraipena egin dugu departamentuek Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuari emandako informazioarekin.

Zehazki, eta departamentuek zerbitzu horri emandako informazioaren arabera, aberaste bidegabearen egoeran ordaindutako prestazioekin lotutako datuak, 2018an, kasuko kontratua amaitu zenetik 2018ko abenduaren 31ra bitarte, honako hauek dira⁴:

Departamentua	2018an ordaindutako gastua	Kontratuaren amaieran, 2018-12-31n, metatutako gastua	Kontratu kopurua	Aberaste bidegabearen hasieraren gutxieneko data
Kultura, Kirola eta Gazteria	629.740	629.740	6	2018/1/1
Eskubide Sozialak	31.072.050	59.974.287	62	2013/7/1
Garapen Ekonomikoa	1.952.796	7.202.021	38	2014/1/1
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	99.091	99.091	4	2018/1/1
Hezkuntza	13.292.956	18.360.414	8	2017/9/1
Ogasuna eta Finantza Politika	92.018	273.937	5	2017/1/1
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	3.070.725	4.942.214	14	2016/1/1
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	49.148	864.620	9	2016/11/16
Osasun Departamentua	38.952.905	80.036.968	16	2015/1/1
Guztira	89.651.429	172.383.292	162	2013/7/1

Bistan denez, aberaste bidegabearen egoeran dauden 162 prestazioen kontratuaren amaieratik 2018ko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 172,38 milioikoa da; horietatik, 2018an 89,65 milioi ordaindu ziren.

Kontratuaren indarraldia amaituta duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAREN 2016ko ekitaldiko kontu orokorre buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekursoak eta abar).

2018ko gastu gisa metatutakoaren zatirik handiena Osasun Departamentuari dagokio, 80,04 eta 38,95 milioi, hurrenez hurren, guztira 16 prestaziotarako. Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude jasota, ebaluatutako bi datetatik bakarrean ere, O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak. Kontzeptu horiei lotutako 2018ko gastua 103,81 milioikoa izan zen.

2016ko maiatzean, eta Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuaren barne kontroleko jarduketak kontuan harturik, O-NOZek ekintza-plan bat ezarri zuen honako helburu honekin: 2020rako erosketa guztiak aplikatzekoak diren kontratazio-arauen arabera esleituta egotea.

Egungo egoera, O-NOZek aipatutako ekintza-planaren betetzeari buruz emandako datuen arabera, honako hau da: sendagaiekin lotutako gastuaren ehuneko 48an eta protesiekin, instrumentuekin, osasun materialekin, gai kimikoekin eta gasekin lotutako gastuaren ehuneko 25ean legez ezarritako prozedurak jarraitu dira. Gainerakoei buruz, kasuko ekintzak eramaten ari dira aurrera behar den kontratazio-prozedura gauzatzeko.

⁴ 2018an seinalatutako gastuaren guztizkotik, 2,94 milioi aurrekontuko gastuen 4. kapituluaren kontabilizatutako prestaziei zegokien.

Halaber, aipagarria da Eskubide Sozialetako Departamentuaren gastua, zeina 2018an 31,07 milioikoa izan baitzen guztira 62 prestaziotarako; eta Hezkuntza Departamentuarena, zeina zortzi prestaziotarako 13,29 milioira iritsi baitzen aipatutako ekitaldian.

Konklusioa da 2018an gutxienez ere 190,52 milioi ordaindu zirela indarraldia amaituta zeukaten kontratuetan edo kontratu-euskarririk ez zuten gastuetan. Zenbateko hori ondasun arruntan eta zerbitzuen 2. kapituluko gastuaren ehuneko 30 da. Departamentuek emandako datuak dira, eta ez dugu aztertu egoera horretan gastu gehiagorik dagoen.

Gastuen lagin baten berrikuspena

Honako kontzeptu ekonomiko hauek osatutako lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptuaren deskribapena	Gastua, 2017	Gastua, 2018	Aldea (%) 2018/2017
Ahoko hortzetako osasun-programa	2.528.513	2.495.754	-1
Nafarroako Ospitaleguneko hondakinen kudeaketa	584.160	654.960	12
GANi egindako enkargua, basoak kudeatzeko neurriena	169.287	449.897	166
Intiari egindako lan-enkargua, RICANen lankidetzarekin	153.520	153.619	-

Egindako lanaren konklusioa da gastua, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta dagoela, eta araudian ezarritako epean ordaindu dela; gainera, kudeaketa- eta kontrol-prozedurak arrazoizkoak eta egokiak dira; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Hondakinen kudeaketarako zerbitzua kontratu-euskarririk gabe ematen ari da 2016ko abenduaren 31tik, zeren eta arazo batzuk baitaude pleguak idazteko eta egindako likidazioa deuseztatu baitzen, lizitatzailerak aurkeztutako errekurtsio baten ondorioz. Egoera horretan ordaindutako zenbatekoa, aipatutako datatik hasi eta 2019ko irailaren 1era arte, 724.835 eurokoa da.

- Hondakinen kudeaketa-zerbitzuari dagokion faktura bat eta GANek betetako enkarguari dagokion faktura guztiak, bi izan ezik, araudian ezarritako epea gaindituta ordaindu ziren; lehenengo kasuan, ordainketa 69 egunera egin zen, eta enkarguaren kasuan batez besteko ordainketa-epea 50 eguneko izan zen.

Halaber, honako gastu hauetan osaera, 2017koekiko aldea eta sortzapen-printzipioaren aplikazioa aztertu ditugu:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2017	Zenbatekoa, 2018	Aldea (%) 2018/2017
Osasun itunak	54.564.463	56.620.599	4
Itzaleko bidesarien kanonak	63.795.152	65.802.770	3

Egindako berrikuspenetik, honako konklusio hauek atera ditugu:

- Osasun-itunen arloko gastua 56,62 milioi eurokoa izan zen, eta ehuneko lau egin zuen gora 2017. urtearekin alderatuta, funtsean gora egin zutelako organoen transplantearekin lotutako jardueratik heldutako gastuak (ehuneko hamar) eta San Juan de Dios Klinikatik heldutakoak (ehuneko hiru).

- Ondoren erakusten ditugu zerbitzu hori eman duten hornitzaileen kopurua eta jaso duten zenbatekoa:

Zenbat hornitzaile	Jasotako zenbatekoa
2	>17 milioi euro
4	(17 milioi euro, milioi bat euro)
16	(Milioi bat euro, 100.000 euro)
215	<100.000 euro

Ikusten denez, osasun-itunak 237 hornitzaileekin egin ziren; horietatik bi 17 milioi eurotik gorakoak dira: San Juan de Dios Ospitalea, 22,54 milioirekin eta Nafarroako Unibertsitatea Klinika, 17,67 milioirekin.

- Kanonen gastua (itzaleko bidesariak) 65,80 milioikoa izan zen 2018an. Hona hemen xehakatea:

(euroak, milakotan)

Kanona	2017	2018	Aldea (%) 2018/2017
Donejakue Bideko autobia	46.195	47.790	3
Pirinioetako autobia	17.597	18.005	2
Informatikaren arloko elkarte teknikoek kuotak	3	7	163
Guztira	63.795	65.802	3

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horretako likidazioa ere. Hartara, 2017. urteari egotzitako 2018ko gastua 5,09 milioikoa da, eta 2019ko aurrekontuan erregistratutako 2018ko, gastua, berriaz, 5,34 milioikoa.

Kontratazio-espeditenteen lagin baten berrikuspena

NFKAk, NEKPk eta Nilsak izapidetutako honako kontratazio-espeditente hauek fiskalizatu ditugu:

Helburua	Mota	Prozedura	Adjudikatzeko irizpidea	Lizitatzailerik kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
O-NOZeko speechmagic-dragon-en mantentzerako eta euskarriko laguntza teknikoak	Zerbitzuak	Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena, irizpide kualitatiboekin	1	61.083	0
Euskarak Nafarroan duen inpaktu ekonomikoari buruzko azterlana	Zerbitzuak	Sinplifikatua	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena, irizpide kualitatiboekin	3	40.250	19
Ogasun Departamentuaren eraikineko argiterian erreforma-lanak egiteko proiektuaren erredakzioa eta zuzendaritza fakultatiboa	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikatzerik egin gabea	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena, irizpide kualitatiboekin	4	14.000	30
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa .SMPren aseguru-programa zentralizatuko polizak	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikatzea eginda	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena	11	470.482	23
Tuterako eta Nafarroako Hego-mendebaldeko garraioko eta hondakin-uren tratamendurako instalazioetako operazioak, mantentzea eta kontserbazioa (Nilsa)	Zerbitzuak	Irekia, Europar Batasunean publikatzea eginda	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena, irizpide kualitatiboekin	10	416.298	23
2019. urtean errepideetarako gatza hornitzeko esparruakordioa	Hornidura	Irekia, Europar Batasunean publikatzea eginda	Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlaziorik onena, irizpide kualitatiboekin	1	Ez da aplikagarria	

Aipatutako kontratazio-espeditenteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Ez dago zehatz jasota zenbateko balioa kalkulatu den argiteriaren erreformarako aipatutako proiektuaren erredakzioa lizitatzeko.
- O-NOZen speechmagic-dragon delakorako laguntza teknikoaren, mantentzearen eta euskarriaren lizitazioa arautu zuten pleguek exekuziorako baldintza berezi batzuk ezartzen zituzten; horien gaineko jarraipen egokirik ez zen egin, ordea, Ganbera honek kontratua aztertu zuen arte.

- Euskararen ebaluazioari buruzko azterlanaren kasuan, ez zen egiaztatu adjudikaziorako irizpide sozialak betetzen ziren, haien arabera baloratu baitziren eskaintzak, harik eta Gabera honek kontratua aztertu zuen arte.

Aurreko puntuko kontratuari dagokionez, kasuko pleguek ezartzen zuten eskaintza bat baxuegitzat joko zela baldin eta kontratuaren gehieneko aurrekontuaren ehuneko 15etik gorako beherapena bazekarren. Hala bazen, inguruabar hori gainerako lizitatuzaileei jakinaraziko zitzairen, kasuko alegazioak egin zitzaizkion, eta kontratazio-organoak ebazpena emanen zuen, zioak emanda, eskaintza hori onartzeari ala ez onartzeari buruz.

Kontratuaren adjudikazio-hartzaile suertatu zen eskaintzak ehuneko 19ko beherapena zekarren, eta ez zen pleguetan ezarritako prozedura bete.

- NEKPk eta Nilsak adjudikatutako kontratuen lizitazio-prozeduran, ez dago jasota haiei buruzko txosten juridikorik; araudiak, dena den, ez du halakorik eskatzen.

- NEKPk lizitatutako aseguru-polizen programa zentralizatuaren kontratua arautu zuten pleguek ez zuten behar beste zehazten lizitatuzaileek beren kaudimen ekonomikoa justifikatzeko aurkez zezaketen dokumentazioa, eta horrek eragin zuen eskaintza bakoitza atal horretan desberdina izatea.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kontratuaren exekuziorako baldintza bereziak, pleguetan ezarritakoak, egoki kontrolatu eta jarraitzea.*

- *Adjudikaziorako lizitatuzaileek aurkeztutako irizpide sozialak betetzen direla egiaztatzea.*

- *Eskaintza baxuegiekin lotutako pleguetan ezartzen diren prozedurak aurrera eramatea.*

- *Lizitatuzaileek kontratazioen zenbatetsitako balioaren kalkulurako euskarri egokia ematea.*

- *Enpresa publikoen lizitazioetan aurrera eramandako jarduketara juridikoak jasota uztea.*

- *Pleguetako betekizunak justifikatzeko lizitazioen eskaintzetan jaso behar den dokumentazioa zehaztea.*

V.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL- TRANSFERENTZIENGA- TIKO GASTUAK

Transferentzia arruntak

2018an emandako transferentzia arruntek 1.513,87 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebe- harren guztizkoaren ehuneko 36 dira. Gastu horiek ehuneko bi egin zuten gora 2017koekin alde- ratuta, ondoren erakusten dugun bezala:

(euroak, milakotan)			
Transferentzia arruntak	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Estatuko Administrazioari (hitzarmena)	511.139	529.583	4
Fundazioei	8.136	9.503	17
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	130.510	85.406	-35
Toki entitateei	274.878	292.072	6
Enpresa pribatuei	64.341	77.386	20
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	499.866	519.852	4
Kanporako	27	71	160
Guztira	1.488.897	1.513.873	2

Oro har, kontzeptu guztietan gastua igo da, baina enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei egindako transferentziak ehuneko 35 jaitsi dira (45,10 milioi euro gutxiago), zeren eta 2017an Nasuvinsa enpresa publikoari transferentzia bat egin baitzitzaion, Garraioaren Hiriarekin lotutako epai bati aurre egin ahal izateko.

Gastuen kapitulu honi dagokionez, aipatu beharra daukagu Ganbera honek 2019ko martxoan txosten bat eman zuela farmazia-prestazioari buruz. Prestazio horrek, izan ere, 135,20 milioiko gastua eragin zuen 2018an.

Halaber, aipatu behar dugu Kontu-hartze Zerbitzuaren barne-kontrolako planak alde aurreko kontu-hartzetik salbuetsitako honako gastu hauek aztertu zituela: etxebizitzaren arloko laguntzak eta eraikuntza sustatzekoak eta pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, presta- zio bermatu moduan araututakoak.

Kapital-transferentziak

2018an baimendutako kapital-transferentziak 133,90 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian ai- tortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru egiten dute, eta ehuneko 25eko igoera izan zuten 2017koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

(euroak, milakotan)			
Kapital-transferentziak	2017	2018	Aldea (%) 2018/2017
Fundazioei	5.208	4.963	-5
Enpresa publikoei	2.010	2.375	18
Toki entitateei	30.237	44.810	48
Enpresa pribatuei	39.421	41.280	5
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	30.246	40.467	34
Guztira	107.122	133.895	25

2018an, transferentzien ehuneko 33 toki entitateei egin zitzaizkien; ehuneko 31, enpresa pri- batuei; ehuneko 30 familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, eta gainerako ehuneko sei, azkenik, fundazio eta enpresa publikoei.

Oro har, artikuluko ekonomiko guztiek igoera handiak izan zituzten 2017koen aldean. Nabar- mentzekoa da toki entitateenak ehuneko 48 egin zuela gora (14,57 milioi); jaitsi den bakarra fun- dazioentzako transferentzietan dagokiena da, zeina ehuneko bost jaitsi baita (0,25 milioi).

V.7.1. Aztertutako lagina

Honako hau da transferentziak direla-eta aztertu den lagina:

(euroak, milakotan)

	Gastua, 2017	Gastua, 2018	Aldea (%) 2018/2017
<i>Transferentzia arruntak</i>			
Nafarroako Ubideko ureztaketa-kanona	14.160	13.808	-2
Nafarroako Ubideko zabalpenaren ureztaketa-kanona	2.916	7.015	141
Protesia, ortesia eta automobilak	1.668	1.744	4
Toki entitateentzako konpentsazioa, tributueterako hobariak direla eta	1.358	1.899	40
<i>Kapital-transferentziak</i>			
Uraren goi horniduraren plana	1.479	8.426	470
Hiri-hondakin solidoen tratamendurako plana	0,09	3.017	3.352.122
Aranguren Ibarreko Udalarentzako transferentzia	345	1.460	323

Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimenduta, kontu-hartzaileak ikusita, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta dirulaguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu –edo, kasua bada, itzuli– direla; halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Nafarroako Ubideko ureztaketa-kanonaren gastuak 2017ko abenduari dagozkionak hartzen dituzte, bai eta 2018ko urtarrila-urria aldikoak ere; hau da, 2018ko aurrekontuari 11 hilabeteko gastuak egotzi zaizkio, eta, printzipioz, 2019an, 13 hilabetekoak egotziko lirateke. 2018ko azaroko gastuak kontabilizatu izan balira, partidaren gutzizko gastuak 697.121 euro handiagoak izanen ziren.

- Nafarroako Ubidearen zabalkuntzako ureztaketa-kanonaren gastuak nabarmen hazi dira 2017koen aldean (4,1 milioi). Igoera hori justifikatzen duten arrazoen artean dago ezen, aurreko kasuan ez bezala, 2017ko azken hiruhilekoari eta 2018ko urtarrila-urria aldiari dagozkien gastuak kontabilizatu direla. Horrek esan nahi du 13 hilabeteko gastuak egotzi direla. Sortzapenaren irizpidea aplikatuz aurreko ekitaldiko abenduko gastua gehi kasuko ekitaldiko 11 hilabeteri zegoki-ena egotziko balira, 0,37 milioi txikiagoa izanen litzateke gastua.

- Toki entitateentzako tributuengatikoko hobariaren konpentsazioa arautzen duena 325/1998 Foru Dekretua da. Arau horretan, epe batzuk zehazten dira toki entitateek konpentsazio-eskaerak aurkez ditzaten, bai eta toki administrazioaren arloko departamentu eskudunak horri buruz ebatzi eta ordaintzeko epe batzuk ere.

Egiaztatu dugu ez direla arau horretan ezarritako epeak betetzen; horrek, eta horrekin batera aurrekontu-partidak urteko azken hilabetera arte krediturik ez edukitzeak, eragiten dute konpentsazioak atzerapen nabarmenez egitea; atzerapen hori gutxienez urtebetekoa da, eta kasuren batean bi urtera ere iristen da.

- Aranguren Ibarreko Udalaren transferentzia, osasun etxearen erreformarako bideratu zena, dirulaguntza izenduna da, hitzarmen batean artikulatu beharrekoa. Haren zenbatekoa 600.000 eurotik beherakoa izan bazen ere, Kudeaketa Ekonomikoaren Zerbitzuak ez zion hitzarmen hori igorri Kontuen Ganberari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 53. artikuluan hala ezartzen duen arren.

Gure gomendioak:

- Toki entitateentzako tributuengatikoko hobariaren konpentsazioarekin lotutako aurrekontu-partida aurrekontu-ekitaldiaren hasieratik zuzkitzea, ordainketa hori arintzeko.

- Toki entitateentzako tributuengatikoko hobariaren konpentsazioarekin lotutako prozedurarako araudian ezarritako epeak betetzea, edo araudia aldatzea egiazki aplikatutako prozedura jasoz.

- *Kontabilitate-sisteman behar diren tresnak ezartzea bereiz jaso daitezzen Nafarroako Ubi-deko ureztaketetarako kontzesioaren kanonetik sortutako gastuak, aurrekontu-aplikazioaren unea zein den ere.*

- *Kontuen Ganberari egindako hitzarmenak igortzea, araudian ezarritako zenbatekoak gaintzen badituzte.*

V.7.2. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributu-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago.

Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpen hori bost urteko epeetarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

Zehazki, 2015-2019 bosturtekorako, Ganbera honen 2016ko eta 2017ko ekitaldietako kontu orokorreki buruzko txostenetan jada deskribatu zen nolako arazoa zegoen ekarpena finkatzeari buruzko akordio batera iristeko; desadostasun hori 2017ko abenduaren amaieran ebatzi zen, bi administrazioek akordio bat sinatu zuten bai 2015-2019 bosturtekorako ekarpenaren onespenerari buruz, bai doikuntza fiskalak zehazteko metodologia berriari buruz.

Honako hauek izan dira hitzarmen ekonomikoari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak, 2018ko aurrekontuan aitortuak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren artean egindako alderaketa:

(euroak, milakotan)			
Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	509.175	529.583	4
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatikoko konpentsazioa	1.965	0	-
Gastu-partiden guztizkoa - Hitzarmena	511.140	529.583	4
BEZarengatikoko doikuntzak	889.110	969.918	9
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	-37.958	-35.373	7
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	6.431	5.840	-9
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	12.235	12.532	2
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatikoko doikuntza fiskala	133.152	69.379	-48
<i>BEZarengatikoko eta zerga bereziengatikoko doikuntzak atal honetan, guztira</i>	<i>1.002.970</i>	<i>1.022.296</i>	<i>2</i>
2015-2016 aldiko Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioaren saldoa	128.694	0	-91
2017ko Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioaren saldoa	0	11.481	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren tributuetan	92	93	1
Diru-sarreraren partidak, guztira - Hitzarmena	1.131.756	1.033.870	-9

Gastuak

2018an Estatuari egindako ekarpenak 529,58 milioi euro egin zuen. Ekitaldian aitortutako be-beharren guztizkoaren ehuneko 13 da, eta ehuneko lau egin du gora 2017koarekin alderatuta.

2017ko abenduko akordioak 510 milioiko ekarpena ezarri zuen oinarri-urterako; horrek berekin ekarri zuen 2017ko behin betiko likidazioak Nafarroaren aldeko 11,48 milioiko konpentsazioa ekartzea 2018an.

Tributu bidezko diru-sarrerak

Aplikaturako doikuntzak zeharkako zergei, BEZari eta zerga bereziei dagozkie, eta hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako formulen eta metodoen arabera kalkulatu dira.

2017ko abenduan doikuntza fiskalak egiteko adostutako metodologiak berekin ekarri zuen, oro har, kontsumo-aldaketaren adierazleak gorantz aldatzea, eta kudeaketa-adierazleak, berriz, beherantz: Parametro horien aplikazioak eragin hainbat zergatan erregularizazioak egitea, eta 2016. eta 2017. urteetan alde nabarmenak gertatzea zenbait doikuntzetan; esate baterako, hidrokarburoen gaineko zergari dagokionean. Alde horiek jada 2017an zuzendu eta egotzi ziren; hori dela eta, partida horri dagokion zenbatekoa ehuneko 48 jaitsi da 2018an.

Hitzarmeneko aurrekontuetako gastuen eta diru-sarreraren 2014-2018 aldiko bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko gastuek eta diru-sarrerak nolako bilakaera izan duen 2014-2018 aldian:

	2014	2015	2016	2017	2018	Aldea (%) 2018/2014
Estatuarentzako ekarpena	555.835	591.043	520.687	509.175	529.583	-5
Sektore elektrikoko zergengatiko konpen- tsazioa	0	26.859	20.169	1.965	0	-
Hitzarmenaren gastuak, guztira	555.835	617.902	540.856	511.140	529.583	-5
BEZarengatiko doikuntzak	750.869	811.648	835.522	889.110	969.918	29
Fabrikazioaren gaineko zerga bereziengati- ko doikuntzak	-32.095	-67.184	-34.987	113.860	52.378	-263
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	0	0	0	128.694	11.481	-
Sektore elektrikoko zergengatiko konpen- tsazioa	0	0	2.743	0	0	-
Diputazioen parte-hartzea Estatuko diru- sarreretan	82	79	88	92	93	13
Hitzarmenaren diru-sarrerak, guztira	718.856	744.543	803.367	1.131.757	1.033.870	44

2018an, Estatuaren ekarpena ehuneko bost jaitsi zen, bi administrazioek 2017ko abenduaren amaieran ekarpenaren eguneratzeari buruzko adostasun batera iritsi ondoren.

Aldi osoa hartuta, fabrikazio-zerga bereziengatiko doikuntzak nabarmen handitu ziren, ehuneko 263, 2017ko abenduan metodologia eta indizeak direla-eta aldaketa bat adostu ondoren.

V.8. INBERTSIOAK ETA IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

2018ko inbertsioak 152,46 milioi eurokoak izan ziren –aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru–, eta betetze-maila ehuneko 86koa izan zen; hona hemen xehetasunak:

(euroak, milakotan)

	Gastua, 2017	Gastua, 2018	Aldea (%) 2018/2017
Lurrak eta ondasun naturalak	348	919	164
Herri-lanak	47.434	51.534	9
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	25.370	39.906	57
Makinak, instalazioak eta tresnak	1.671	4.703	181
Garraio materiala	2.786	3.144	13
Altzariak eta tresneria	14.621	22.625	55
Informazioa prozesatzeko ekipoa	5.873	9.018	54
Bestelako ibilgetu materiala	1.892	2.302	22
Ibilgetu ez-materiala	19.154	18.305	-4
Guztira	119.149	152.456	28

Inbertsioen ehuneko 35 Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagozkie, eta ehuneko 20, berriz, Osasun Departamentuari.

2018ko inbertsioak 2017an egindakoak baino ehuneko 28 handiagoak izan ziren. Gastu horrek ehuneko 56 egin du behera 2010ekoekin alderatuta, eta 273,59 milioikoa izatetik 152,46 milioikoa izatera pasatu da, nahiz eta 2017an hasitako goranzko bideari eutsi zaion:

Inbertsioak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
6. kapitulua, guztira (miliotan)	273,59	193,93	142,61	125,05	94,13	91,86	84,86	119,15	152,46
<i>Aurkibidea</i>	<i>100</i>	<i>71</i>	<i>52</i>	<i>46</i>	<i>34</i>	<i>34</i>	<i>31</i>	<i>44</i>	<i>56</i>

Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegiturretan egindako inbertsioak –horietatik 46,44 milioi euro, 2018an, batez ere errepideetan egindako lanei dagozkie– ez daude jasota balantzearen ibilgetu materialean; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkie.

Ibilgetu ukiezinetan egindako inbertsioak ere ez dira jaso ibilgetu ukiezin moduan balantzearen aktiboan; izan ere, emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkie ibilgetu ez-materialaren galera gisa. 2018an, 21,11 milioi euro izan dira.

Oraindik ere ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.

Kontu orokorren oroitidazkian ez dago informaziorik ondasun eta eskubideen inbentarioari buruz, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoak bestera.

Gastuen lagin baten berrikuspena

Gastuen lagin bat aztertu dugu, 13,18 milioikoa; hartatik lortu ditugun datu garrantzitsuenak aurkezten ditugu hemen:

Kontzeptuaren deskribapena	2018an aitortutako betebeharrak garbiak
Tratamendu onkologikorako ekipamendua	5.623.596
Navarra Arena kiroldegia egokitzeko obrak	5.166.820
Testuliburuaren doakotasun-programa	1.731.134 ⁵
Navarra Arena kiroldegiko ekipamendua	664.378

⁵ Gastu hori dator programa hori ikastetxe publikoetan aplikatzetik; ikastetxe itunduetara bideratzen den zenbatekoa, berriz, gastuen 7. kapituluan erregistratzen da, eta 1,03 milioikoa izan zen 2018an. Horri dagokionez, programaren kudeaketa aztertu dugu bai ikastetxe publikoek dagokienez, bai itunduei dagokienez ere; hori dela eta, berrikusitako gastua 2,76 milioikoa izan da guztira.

Oro har, gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak baimenduta, justifikatuta eta zuzen kontabilizata daude, eta kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea gainditu gabe ordaindu dira; halere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Testuliburuaren doakotasun-programaren kasuan, honako hauek dira detektatutako gabeziak:

a) Hezkuntza Departamentuan kontrolatzen dute ikastetxe bakoitzak jaso dezala araudian testuliburuaren doakotasun-programa betearazteko ezarritako gehieneko zenbatekoa edo modulua, ikastetxeek ikasleei eta liburuei buruz emandako informazioa kontuan hartuta.

Gero, ikastetxe itunduek formulario bat betetzen dute, zeinean kasuko fakturen datu batzuk jasotzen baitira, faktura eransteko betebeharra eduki gabe. Gaur egun, ikastetxe publikoetan aplikazio informatiko bat (ECOEDUCA) ezartzen ari da, zeinean fakturei buruzko informazioa jasotzen baita; hartan ere, ez da derrigorrezkoa haiek eranstea.

Horri dagokionez, Hezkuntza Departamentuak ez du gastuaren, ez eta haren justifikazioaren kontrolik egiten; hori dela eta, ez daki zein liburu erosi diren, liburu batzuk doakotasunetik kanpo geratu ote diren eta abar. Horri dagokionez, Ganbera honek jada 2008ko ekitaldiko kontu orokorreari buruzko txostenean gomendatu zuen kontrol hori egin zedila.

b) Liburuaren doakotasun-programari buruzko araudiak ezartzen du ikasleen legezko ordezkariak ordaindu behar dituztela ikastetxeak hautatu dituen liburuaren kostuaren eta departamentuak ezarritako modulua artean dagoen aldea. Egiatzatu dugu ikastetxeetan irizpide desberdinak daudela alde horiek ordaintzeari dagokionez: batzuetan aipatutako ordezkariari eskatzen zaie diru hori; beste batzuetan, ikasmila guztien artean banatzen da, eta beste batzuetan, azkenik, ikastetxeak berak ordaintzen du.

c) Hainbat inguruabar badaude eragin dezaketenak ikastetxeek jasotako diru guztia ez gastatzea (liburu batzuk doakotasunetik kanpo uztea, liburu guztiak ez berritzea erabakitzea, eta abar) eta kopuru batzuk sobran geratzea; ikastetxe itunduen kasuan, diru hori itzuli egin behar dute. Alabaina, ikastetxe publikoek betebehara hori ez dute, eta hurrengo urterako aurrekontuan txerta dezakete. Hezkuntza Departamentuak horren gaineko inongo kontrolik ez du egiten, ezta ere.

d) Ikastetxeek interpretazio desberdinak egiten dituzte lanketa propioko materialtzat –eta, horrenbestez, finantza daitekeen gastu-kontzeptutzat– jo daitekeenari buruz. Aztertutako laginean, ikastetxe batzuek jaso egiten dute, baina beste batzuek ez. Halakorik ere ez du kontrolatzen aipatutako departamentuak.

Azken batean, egindako azterketan ikusi dugu programa honen kudeaketan ikastetxeek aplikatzen dituzten irizpideak desberdinak direla, eta Hezkuntza Departamentuak ez duela horren gaineko kontrol egokirik egiten; horrek, izan ere, eragin dezake ikastetxeen artean aldeak egotea.

- Tratamendu onkologikorako ekipamenduaren arloko inbertsioa –5,62 milioi, guztira– Amancio Ortega Fundazioarekiko hitzarmen baten bitartez finantzatu zen. Kopuru hori jasoko zen ziurtasuna zegoen arren, 4,33 milioiko diru-sarrerak baizik ez ziren kontabilizatu, egiazki jasotako kopuruei zegozkienak; beste guztia (1,29 milioi) 2019ko aurrekontuari egotzi zitzaion.

- Arena kiroldegia egokitzeko obretarako kontratu nagusiari –4,90 milioikoa– dagokion iragarria 2017ko abuztuaren 17an jarri zen Kontratazio Atarian, eta urte bereko irailaren 4ra arteko epea eman zen eskaintzak aurkezteko. Lizitatzen ari zen kontratuaren bolumena eta diru-zenbatekoa kontuan hartuta, gure ustez emandako epea luzeagoa izan zitekeen, eskaintza gehiago ego zitezen; izan ere, eskaintza bakarra aurkeztu zen.

Lizitatzailerak aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, aipatu beharra daukagu azpikontratisten lankidetzan jarduteko konpromisoetako batzuk lizitazioa Kontratazio Atarian argitaratu baino lehenagokoak direla.

Bestetik, 40 puntuko guztizko puntuaziotik bi puntu eman zitzaizkien gizarte-bazterketako egoeran zeuden pertsonen kontratazioari. Kontratazio hori justifikatzeko bi nomina aurkeztu ziren arren, ez zen egiaztatu pertsona horiek benetan aipatutako egoeran zeuden.

Kontratazio-espedienteen lagin baten berrikuspena

NFKAren, Nasertic-en, Nilsaren, Intiaren, Miguel Servet Fundazioaren eta A-12 autobia-
ren emakidadunaren inbertsioen adjudikazio-espedienteen eta 2018an ekarri dituzten gastuen lagin
bat aztertu dugu. Hona espedientea horien xehetasunak:

Helburua	Prozedura	Adjudikatzeko irizpidea	ZK. kopurua	Zenbatekoa zenbatekoa	Adjudikazioa- ren baja (%)
Zenbait departamentutarako zazpi ibilgailu hornitzea		Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	2	17.277	9
Material didaktikoak erostea, lanbide heziketako ikastetxe publikoetarako		Eskaintzarik onena	5	123.432	4
Sarriguren BHlko 1. azpifasea eraiki- tzeko obren kontratazioa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	3	4.195.959	6
Plastikozko betegarria (Carriers) hornitzea, Lizarrako HUAN erabil- tzeko		Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	3	143.472	29
Iruña-Logroño A-12 autobiaiko seinale bertikalak		Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	8	588.739	35
Dantxarinea-Urdazubi-Zugarramurdi aldeko lurrazpiko kanalizazio-lanak	Lizitazio deialdi- rik gabeko prozedura negoziatua	-	1	77.241	-
Navarrabiomed ikerketa zentroko laborategirako altzariak hornitu eta instalatzea	Sinplifikatua	Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	2	58.310	-
Sartagudako finka esperimentalean, biltegi-nabe bat negutegi gisa zahar- berritzeari buruzko azterlana	Kontratu txikia: faktura	Kostuaren eta eraginkortasuna- ren arteko erlaziorik onena, iriz- pide kualitatiboekin	1	25.166	-

Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu dira, eta haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira; halere, zenbait gabezia detektatu dira, eta horietatik garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

- Zazpi ibilgailuak entregatzeko ezarritako epeak eragin zuen balizko lizitatzailerik batzuk lizitazioa ez aurkeztea, zeren eta ezin baitzituzten ondasun horiek eskuratu; horren eraginez, kontatua banatuta zegoen sei loteetatik bakarria adjudikatu zen, eta gainerakoak adjudikatu gabe utzi ziren. Horri buruz, aipatu behar dugu 2019an ez dela inongo lizitaziorik egin.

- Kanalizazio-lanei dagozkien lau fakturretatik, hiru atzerapenez ordaindu ziren: horietako bat, 63.732 eurokoa, araudian ezarritako epea baino 16 egun geroago ordaindu zen; beste biak, 11.826 eta 468 eurokoak, berriz, 13 eguneko atzerapenez.

- Ez dago justifikatuta laborategirako altzariak hornitzeko kontratua lotetan ez banatzearen arrazoia, eta dokumenturik ez dago, ezta ere, justifikatzen duenik eskuratutako ondasunak jaso zirela; horrek, izan ere, berme-epea aplikatzeko zailtasunak eragin ditzake.

Prozedura erraztuaren garapenari dagokionez, bost eskaintza eskatu ziren, eta bi baizik ez ziren aurkeztu; horri buruz, esan beharra daukagu aurkeztutako bi eskaintza horiek ia berdinak direla; geroztik, kontratazio-organoak lizitatzailerik eskatu ziren dokumentazio gehigarria aurkez zezaten, eta, azkenean, aukeretakoa bat baztertu egin zen, informazio nahikorik ez aurkezteagatik.

- Egiaztatu dugu ezen, araudiak betebeharrak hori ezartzen duen arren, egindako kontratu txikiak ez direla Kontratazio Atarian hiru hilez behin argitaratu. Kontratu horien artan dago Sartagudako negutegia zaharberritzeari buruzko azterlana.

Gure gomendioak:

Liburuen doakotasun-programari dagokionez:

- *Liburuen doakotasun-programarekin lotutako gastuen exekuzioa eta justifikazioa kontrolatzea.*
- *Doakotasun-programatik heldutako gastuaren fakturak aurkez ditzaten eskatzea bai ikastetxe publikoei, bai ikastetxe itunduei ere, eta haien lagin bat aztertzea.*
- *Araudian ezarritakoari jarraituz, ikasleen legezko ordezkariari eskatzea, nolana ere, finantzatutako zenbatekoaren eta kasuko liburuen kostuaren arteko aldea ordain dezaten.*
- *Liburuen doakotasun-programaren kudeaketari buruzko irizpide argiak ezartzea, eta haiek helaraztea inplikaturako ikastetxe guztiei, haien arteko desberdintasunik egon ez dadin.*

Aurkeztutako gainerako alderdiei dagokienez:

- *Diru-sarreraren eta gastuen korrelazioaren eta sortzapenaren irizpidea aplikatzea kontabilitate-egitateak aurrekontuan erregistratzeko, kasuko ordainketa edo kobrantza noiz gertatzen diren alde batera utzita.*
- *Hiru hilez behin egindako kontratu txikien zerrena argitaratzea Kontratazio Atarian.*
- *Kontratu bakoitzaren konplexutasunaren arabera epea ezartzea eskaintzak aurkezteko, ahal den lizitatuak gehien aurkeztu ahal izateari begira.*
- *Fakturak araudiak ezartzen duen epearen barruan ordaintzea.*
- *Egiten diren lizitazioak lotetan ez banatzeko arrazoiak justifikatzea.*
- *Erositako ondasunak jaso izanaren egiaztagiria egitea.*
- *Kasuko kontratuaren exekuziorako baldintzak, pleguetan ezarritakoak, egoki kontrolatu eta jarraitzea.*
- *Adjudikaziorako lizitatuak aurkeztutako irizpide sozialak betetzen direla egiaztatzea.*

V.9. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Zergak

2018ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiak 3.609,95 milioi eurokoak izan ziren. 2017an baino ehuneko bat (28,49 milioi) gutxiago dira, eta eskubideen gutzitzaoren ehuneko 88 egiten dute.

Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu, zerga-figura desberdinetarako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak		Diru-bilketa garbia		(euroak, milakotan) 2018/2017 aldea (%)	
	2017	2018	2017	2018	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
	PFEZa	1.282.948	1.363.513	1.282.945	1.345.923	6
Sozietateak	303.945	223.538	256.130	192.602	-26	-25
Egoiliar ez direnen errenta	5.761	5	5.761	5	-100	-100
Ondarea	39.037	37.873	39.037	37.873	-3	-3
Oinordetzak eta dohaintzak	45.772	56.503	43.402	56.503	23	30
Banku-gordailuen gainean	4.902	4.989	4.902	4.982	2	2
Energia-ekoizpenaren balioaren gainean	30.336	50.757	28.178	37.608	67	33
Saltoki handiak	-5	-10	-5	-8	100	-0,2
Loterietako eta apustueta sariak	13.316	2.620	13.316	1.632	-80	-88
1. Zuzeneko zergak	1.726.012	1.739.788	1.673.671	1.677.120	1	0,2
BEZa	1.306.836	1.270.397	1.306.836	1.181.697	-3	-10
Zerga bereziak	552.967	506.397	552.326	493.856	-8	-11
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-5.990	-348	-5.990	-348	-94	-94
Aseguru primen gaineko zerga	20.800	21.525	20.579	21.338	3	4
Ondare-eskualdaketak	47.952	54.828	47.282	54.828	14	16
Egintza juridiko dokumentatuak	6.553	13.918	6.554	13.919	112	112
Joko-jarduerak	2.046	2.266	1.920	2.246	11	17
Berotegi-efektuko gas fluordunak	1.228	1.177	1.229	1.178	-4	-4
2. Zeharkako zergak	1.932.392	1.870.161	1.930.736	1.768.714	-3	-8
Zergak, guztira	3.658.404	3.609.949	3.604.407	3.445.834	-1	-4

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Aitortutako eskubideak ia 2017ko zenbatekoetan mantentzen badira ere, joera desberdinak daude aintzat hartutako zerga-figuraren arabera. Hartara, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga eta PFEZa ehuneko 23 eta ehuneko sei handitu ziren hurrenez hurren; berariazko kontsumoen gaineko zergak edo sozietateen gaineko zerga, aldiz, ehuneko 94 eta ehuneko 26 gutxitu ziren, hurrenez hurren.
- Diru-bilketa garbiari dagokionez, zenbatekoak direla-eta honako hauek nabarmendu behar dira: PFEZa, 1.345,92 milioi euro, eta BEZa, 1.181,70 milioi euro, zeinak gutzitzaoren eta ehuneko 39 eta ehuneko 34 baitira, hurrenez hurren.
- Hiru zerga-figura handietatik, PFEZa da igo den bakarra (80,41 milioi); bestetik, BEZa eta sozietateen gaineko zerga ehuneko hiru eta ehuneko 26 jaitsi ziren, hurrenez hurren (80,57 eta 36,44 milioi).
- Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko kargatik eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargatik datozen diru-sarrerak ere igo egin dira, 20,42 eta 7,37 milioi hurrenez hurren.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ahaleginak egin dituen arren, kontabilitate-sistemen arteko lotura egokiaren faltatik heldutako arazoek bertan dira, SAPGE21 kontabilitate-sistemaren diru-bilketa garbia arrazoizkoa ez izatea; izan ere, aurtengo ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak biltzen ditu. Gainera, kobratzen zenbatekoak ez dira sailkatzen printzipalaren, errekaruen eta interesen artean. Hori dela eta, CATek emandako informazioarekin, egozpen bat egiten da ekitaldi honetakoak izanen liratekeen eta aurreko urteetatik etorriko liratekeen kobrantzekin; kalkulu horietan oinarrituta, Kontabilitate Zerbitzuak beste egozpen bat egiten du kopuru horiek ekarriko luketenari buruz. Bigarren zenbatespen hori da azkenean zerga bakoitzaren diru-bilketa garbi moduan ageri dena.

Aurrekoa kontuan hartuta, diru-bilketa garbia 3.445,84 milioikoa izatera iritsi zen, eta zenbateko hori 2017koa baino ehuneko lau txikiagoa da (158,57 milioi); jaitsiera aipagarrienak honako hauek dira; BEZa ehuneko hamar jaitsi da (125,14 milioi) eta sozietateen gaineko zerga ehuneko 25 jaitsi da (63,53 milioi).

- BEZari dagokionez, kontuan hartu beharra dago ea kudeaketa Nafarroak zuzenean egiten duen edo Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren bitartez egindakoari dagokion. Hartara, honako hau da xehakatzea aurreko irizpideari jarraituz:

(euroak, milakotan)

Aitortutako BEZa	2016		2017		2018	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	386.340	32	417.726	32	300.479	24
Hitzarmenaren doitzea	835.522	68	889.110	68	969.918	76
BEZa, guztira	1.221.862	100	1.306.836	100	1.270.397	100

Ikusten den bezala, aitortutako eskubide gehienak hitzarmenetik datozen doikuntzen ondorioz sortu dira; 2018an, Nafarroako Zerga Ogasunaren zuzeneko kudeaketa jaitsi da, eta aurreko urteetan eskubide guztien ehuneko 32koa izatetik ehuneko 24koa izatera pasatu da.

Bestalde, 2018ko ekitaldiaren itxieran konpentsatu beharreko BEZa 159,40 milioikoa da, eta itzulketa eskatzeko eskubidea edo konpentsazioa egitekoa bost urteren buruan iraungitzen da (itzulketa hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera eska daiteke). BEZ hori CAT kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen edo konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik NZOri ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian, ez da kontu horri buruzko informaziorik ematen.

- CAT delakotik kudeatutako itzulketak –eskudirukoak nahiz konpentsaziokoak izan–, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak, 1.577,08 eurokoak izan dira, Estatuarekiko doikuntzak kontuan hartu gabe; kopuru hori ehuneko 32 handiagoa izan da 2017koa baino. Itzulketen iaerari erreparatuta, haien ehuneko 83 eskudirutan egin dira.

Ondoren, 2018ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

(euroak, milakotan)

Zergen itzulketa	2017	2018
PFEZa	199.567	202.061
Sozietateak	92.975	166.927
BEZ zuzeneko kudeaketa	874.897	1.190.529

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketa bolumen handiena sortzen duena, guztizkoaren ehuneko 76rekin; horren arrazoia da itzulketarako batez besteko epeak nabarmen jaitsi direla.

- Kontu orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

(euroak, milakotan)

Zergak	2018ko onura fiskalen aurrekontua	Emaizak 2018	Ehuneko Errealizazioa
PFEZa	386.010	393.852	102
Sozietateak	120.163	131.341	109
Ondarea	37.466	37.853	101
Egoiliar ez direnen errenta	3.827	537	14
Oinordetzak eta dohaintzak	8.420	10.431	124
1. Zuzeneko zergak	555.886	574.014	103
BEZa	802.586	736.039	92
Zerga bereziak	68.476	65.938	96
Aseguru primen gaineko zerga	8.779	8.294	94
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	6.357	6.983	110
2. Zeharkako zergak	886.196	817.254	92
Onura fiskalak, guztira	1.442.084	1.391.268	96

2018ko onura fiskalak, oroitidazkian jasotako informazioaren arabera (bai aurreikuspenean, bai emaitzetan egindako zenbatespenen arabera lortzen da informazio hori), 1.391 milioi eurokoa da: zenbateko hori ehuneko lau txikiagoa da aurreikusitakoa baino. Oroitidazkian ez da daturik ematen onura fiskal bakoitzarekin lortu nahi diren helburuetarako ekarpenari buruz.

Halaber, Ganbera honen txostenetan azken urte hauetan aipatu bezala, adierazgarria da onura horiek 2018ko ekitaldiko zergengatik aitortutako eskubide garbien ehuneko 39 izatea.

Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioaren arabera, 2008tik 2018ra zerga-iruzurraren aurkako borrokak diru-sarrera hauek sortu ditu:

(euroak, milakotan)

Ekitaldia	Zergen kudeaketa	Ikuskapena	Beste tributu-jarduketa batzuk*	Adierazlearen zenbatekoa, guztira
2008	83.930	47.636	0	131.566
2009	81.404	56.630	0	138.034
2010	67.518	54.852	0	122.370
2011	52.045	38.808	0	90.853
2012	58.648	69.499	0	128.147
2013	57.358	37.826	0	95.184
2014	56.137	28.681	0	84.818
2015	50.992	45.610	8.129	104.731
2016	58.774	46.142	19.363	124.279
2017	94.408	33.586	20.984	148.978
2018	88.961	53.993	27.145	170.108

* 2015ean hasi zen zergadunarekin zuzeneko lotura ez duten baina Nafarroarentzat diru-sarreraren sortzapena dakarten jarduketa mota horien kontaketa.

Zerga-iruzurraren aurkako borrokak sortutako diru-sarrerak nabarmen aldatu dira, eta 2014an iritsi dira balio txikienera; halere, data horretatik aurrera handitu egin dira, eta 2018an 170,11 milioioak dira.

Hurrengo taulan, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak erakusten ditugu xehetasun gehiagorekin, NZOren oroitidazkian jasotako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2017		2018	
Ikuskapena	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa	Jarduketa kopurua	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	527	16.116	467	13.764
Zehapen-espedienteak	317	6.308	377	10.895
Erantzukizun zibila, delituengatik	4	4.921	11	8.882
Ikuskatzaileak induzitutako erregularizazioak	10	832	17	7.903
Kreditu fiskalak deuseztatzea	86	5.409	66	12.549
Ikuskapena, guztira	944	33.586	938	53.993
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	4.418	18.452	8.242	16.829
PFEZa	4.657	5.572	4.372	5.875
Sozietateak	205	1.324	456	10.347
Gainerako zergak	4.500	23.240	3.652	12.991
Zehapenak	15.963	7.424	14.035	6.313
Epez kanpoko aitortzen errekarguak	4.613	1.843	5.384	3.819
Errekerimenduak	3.904	5.693	6.687	9.597
Kudeaketaren diru-sarrera induzituak	5.791	30.860	14.987	23.191
Tributu-kudeaketa, guztira	44.051	94.408	57.815	88.962

2018an, ikuskapenaren arloko jarduketak 2017koak baino gutxiago izan diren arren (sei likidazio), sortutako diru-sarrerak ehuneko 61 handiagoak izan dira (20,41 milioi). Tributuen kudeaketari dagokionez, 2017an baino 13.764 likidazio gehiago egin dira; halere, sortutako diru-sarrerak ehuneko sei (5,45 milioi) txikiagoak izan dira aurreko urtekoan baino.

Erakutsitako diru-sarreraren sortzapenak ez dakar berekin kopuru horiek kobratu izana; arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketan eta kontabilitatean erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla eta, ezin dugu identifikatu zerga-iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.

Aurreko taulako datuak Nafarroako Zerga Ogasunaren oroitidazkian jaso dira; horri dagokionez, egiaztatu dugu zerga-iruzurraren aurkako borroka arduratzen diren arloek ez dutela irizpide bakarra ezarri diru-sarrerak egozteko, eta horrek gero zaildu egiten du zorraren trazabilitatea identifikatzea.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 143,96 milioi eurokoak izan dira 2018. urtean, eta diru-bilketaren portzentajea ehuneko 69 izan zen.

Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko lau egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(euroak, milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitorturiko eskubide garbiak, 2018	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketaren ehunekoa	Aitortutako eskubide garbien 2018/2017 aldea (%)
Tasak	13.963	13.232	95	9
Salneurri publikoak.	52.630	44.595	85	3
Ondasunak saltzea	1.785	1.680	94	-2
Eragiketen itzulketak	10.538	8.126	77	-2
Bestelako diru-sarrerak	65.045	31.643	49	37
Guztira	143.961	99.27699.276	69	16

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerei dagokie: 52,63 milioikoak izan ziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira gizarte-zerbitzuak emateagatik diru-sarrerak, 49,80 milioi egiten dutenak.

Bestetik, tasen bidezko diru-sarrerak 13,96 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik 9,43 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie. 2018ko ekitaldiaren amaieran, ehuneko 95 zegoen bil-duta.

Honako hauek dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 25,98 milioi; berandutza-interesak, 19,66 milioi, eta errekariguak, 7,55 milioi.

Hezkuntza-zerbitzuetako tasetatik datozen diru-sarrerak aztertu ditugu: 2018an, 1,73 milioi izan ziren, 2017an baino ehuneko bederatzi gutxiago.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, haiei buruzko arau erregulatzaileraren arabera likidatu eta bildu zirela; halere, honako hau aipatu behar dugu:

Tasa horiek ordaintzen dituzten pertsonak erabiltzen dituzten zentroek (hizkuntza eskola ofiziala, kontserbatorioak, dantza eskola eta abar) urtero likidazio bat igortzen diote Hezkuntza Departamentuari, eta kasuko zenbatekoaren diru-sarrera egiten dute, ordainketa-gutun batez. Departamentuak ez du inongo kontrolik egiten likidazio horren egokitasunari buruz (matrikulatutako ikasle-kopuruarekin alderatzea, aplikatutako salbuespenak aztertzea eta abar).

Gure gomendioak:

- *CAT aplikazioaren analisi xehakatuan aurrera egitea, lortutako diru-bilketari buruzko datuak lortu eta SAPGE21 sistema elikatu ahal izateko; hartara, informazio fidagarria edukiko dugu finantzen egoera-orriak egiteko eta beste arlo batzuen –besteak beste, zerga-iruzurraren arloaren– kudeaketa eta analisisa hobeki egiteko.*

- *Diru-sarrerak egozteko irizpide bakarra ezartzea zerga-iruzurraren aurkako borroka arduratzen diren arlo guztientzat.*

- *Zerga-iruzurraren aurkako borrokari buruzko zenbateko guztiak jasota uztea, euskarri ego-kian, geroztik zorraren trazabilitatea ezagutu ahal izateko.*

- *Hornikuntza ba jartzea ekitaldiaren amaieran aitortu ez diren zergen itzulketak direla eta.*

- *Kontu orokorren oroitidazkian azterketa exhaustiboago bat jasotzea onura fiskalak direla eta ezarritako helburuetarako ekarpenari buruz.*

- *Ikastetxeek aurkeztutako likidazioen egokitasuna kontrolatzea.*

V.10. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 77,60 eta 29,62 milioi ingurukoak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako eskubide garbiak 2017	2018	2018/2017 aldea (%)	Diru-bilketa garbia, 2018
Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak	168.667	65.848	-61	53.421
Fundazioen transferentzia arruntak	3	54	1.574	54
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak.	152	221	46	221
Toki entitateen transferentzia arruntak	365	362	-1	362
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	94	191	103	191
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	290	71	-75	71
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	8.797	10.851	23	10.851
Transferentzia arruntak guztira	178.368	77.598	-56	65.171
Estatuko Administrazio Orokorraren kapital-transferentziak	530	11.273	2.027	1.273
Fundazioen kapital-transferentziak	0	12	-	12
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	2	12	716	0
Toki entitateen kapital-transferentziak	774	1.274	65	616
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen kapital-transferentziak	0	4.330	-	0
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	9.045	12.719	41	12.630
Kapital-transferentziak guztira	10.351	29.620	186	14.531

Transferentzia arruntek ehuneko 56 egin zuten behera, eta kapital-transferentziek, berriz, ehuneko 186 gora, 2017koekin alderatuta. Nabarmentzekoa da Estatuaren transferentzia arruntek behera egin zutela, zeren eta 2017an igoera handi bat gertatu baitzen hitzarmen ekonomikoaren ekarpena gaurkotzearekin; horrek, izan ere, eragin zuen aurreko urteetako zenbatekoa erregularizatzea.

Honako transferentzia hauei dagozkien diru-sarreraren betearazpena aztertu dugu:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
Estatuko errepideak hobetzeko laguntzengatiko kapital-transferentziak	10.715	715
Amancio Ortega Fundazioaren kapital-transferentziak	4.330	0

Egindako berrikuspenaren konklusioa da ezen espedienteak izapidetzerakoan aplikatzekoa den araudiari jarraitu zaiola, eta zenbatekoak ezarritako epeetan jaso eta egoki kontabilizatu direla; halere, diru-sarrera horien kontabilizatzeari buruz honako hauek aipatu behar ditugu:

- Estatuko errepideak hobetzeko laguntzen kasuan, ez dira jarraitu KPPOan ezarritako irizpideak, eta guztira hamar milioi egotzi zaizkio emaitza ekonomiko eta ondarekoari. Diru-sarrera hori, ordea, emaitzetara eraman behar zen, finantzatzen ari den inbertsioaren bizi erabilgarriaren arabera.

Gainera, aipatu behar dugu oraindik ere ez direla egin aipatutako inbertsioa aurrera eramateko desjabetzeak, ez eta behar den lizitazioa ere. Gastuak justifikatzeko epea 2020ko azaroan

amaitzen dela kontuan hartuta, hasiak dira jada Estatuarekiko negoziazioak horri buruzko luzapen bat eskatzeko.

- Amancio Ortega Fundaziotik datozen diru-sarrerak kontabilizatzeari dagokionez, V.8 epigrafean aipatutakora jo behar da.

Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondaretik datozen diru-sarrerak 10,57 milioi eurokoak izan ziren; hona hemen xehetasunak:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aitortutako eskubide garbien eskubideen 2018/2017 aldea (%)
Gordailuen eta atzerapenen interesak	9.479	9.462	-0,2
Ondasun higiezin errentak	652	533	-18
Emakidak eta aprobetxamendu bereziak	166	524	215
Emandako aurrerakin eta maileguen interesak	75	54	-28
Ondare bidezko diru-sarrerak, guztira	10.372	10.573	357

Honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa, 2018
Nafarroako Ospitaleguneko aparkatze-kanona	280.889
González Tablaseko garajeen jabari-kontzesioa	125.794

Egindako lanaren konklusioa da diru-sarrerak ezarritako hitzarmen eta baldintzen arabera izapidetu direla, eta egoki kontabilizatu direla.

Inbertsio errealen besterentzea

Inbertsio errealen besterentzearengatik aitortutako eskubideak 1,29 milioi eurokoak izan ziren; hona hemen haien xehakatzeari:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aitortutako eskubide garbien 2018/2017 aldea (%)
Lur-sailak besterentzea	283	725	157
Eraikinen salmenta	0	520	-
Ekipamenduen salmenta	0	48	-
Inbertsio errealen besterentzeak, guztira	283	1.293	357

2018an, diru-sarrera horiek 2017koen hiru halako izan dira, zeren eta eraikinez eta ekipamenduez gainera lur gehiago besterendu baitira. 2018ko ekitaldiaren itxieran, diru-sarrera horiek guztiz kobratuta zeuden.

Gure gomendioak:

- *Jasotako dirulaguntzei dagokienez, KPPOn diru-sarrerak aitortzeko ezarritako irizpideak aplikatzea.*

- *Estatuak finantzatutako errepideetan inbertsioak egiteko izapide administratiboak arintzea, jasotako dirulaguntza itzuli behar ez izateko.*

V.11. EPE LABURREKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Zordunak

2018ko abenduaren 31n, zordunen saldoa 404,30 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

(euroak, milakotan)			
Zordunak	2017/12/31	2018-12-31	2018/2017 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	804.755	911.863	13
Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	108	95	-12
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	366	3.146	760
Bestelako zordunak	5.528	5.362	-3
Kaudimen gabeziatarako probisioa	(512.337)	(516.164)	1
Zordunak, guztira	298.420	404.302	35

Aurrekontuko zordunak dira osagai garrantzitsuenak, eta, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran dauden tributu-zordunak dira (kudeaketa arrunta, premiamendu-bidea, tributu-zorren geroratzea).

2018ko abenduaren 31n, saldoa 911,86 milioi eurokoa zen, eta haren ehuneko 57 kaudimengabeziari zegokien (516,16 milioi euro). Hauxe da banaketa:

(euroak, milakotan)			
Aurrekontuko zordunak	2017/12/31	2018-12-31	Aldea (%) 2018/2017
Departamentuetako zordunak	37.011	37.250	1
Zordunak: ohiko kudeaketa	141.045	232.228	65
Zorra dela-eta luzapena eman zaien zordunak	91.307	82.429	-10
Premiamendu bideko zordunak	499.526	503.743	1
Egoera berezietako zordunak	39.718	55.991	41
Erosketak itzultzeagatiko zordunak	0	198	-
Zordunak	808.607	911.839	13
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	(2.237)	3.6701.823.678,00	-264
Kobrantzak eta aplikatzeko dauden sortak	(1.615)	(3.646)	126
Aurrekontuko zordunak, guztira	804.755	911.863	13

Aurrekontuko zordunen saldo orokorrak ehuneko 13 egin du gora (107,11 milioi); nabarmendu beharra dago kudeaketa arrunteko zordunak ehuneko 65 gehiago direla, 91,18 milioi egiteraino, batez ere BEZarengatiko eta PFEZarengatiko zordunen kopurua handiagoa delako, 69,77 eta 20,14 milioi hurrenez hurren, V.3.1 epigrafean aipatutako Berehalako Informazio Sistema ezarztearen ondorioz.

Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa –esate baterako, interesak eta errekarquak– CAT aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa SAPGE21 aplikaziora aldatzen da.

Ganbera honek aurreko txostenetan azpimarratu duen bezala, aurrekontu-likidazioak eta egoerari buruzko balantzeak ez dute zuzen jasotzen CATen informazio guztia. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpidez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta mugaeguneratu gabeko interes eta gainkarguak eta aplikatzeko dauden kobrantzak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko liriteke, aurreratutako diru-sarrera eta hartzekodun gisa, hurrenez hurren.

“Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), zeinak 4,34 milioi euroko saldoa baitu. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duen bezala, zenbateko horrek ez du behar bezalako euskarririk, eta ez dakigu zergatik jaitsi den 0,67 milioi aurreko urtekoarekiko. Kontu horren saldoa guztiz hornituta dago.

Epe laburreko hartzekodunak

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri bartzuei dagozkienak jaso gabe, 542,15 milioi eurokoak dira 2018ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagozkie:

(euroak, milakotan)			
Epe laburreko hartzekodunak	2017/12/31	2018-12-31	2018/2017 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	441.052	387.168	-12
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administrazioagatiko hartzekodunak	6.838	7.645	12
Administrazio publikoak	3.459	3.630	5
Beste hartzekodunak	50.418	139.606	177
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	2.871	4.096	43
Epe laburreko hartzekodunak, guztira	504.638	542.145	7

Hartzekodunen kopuru hori ehuneko zazpi igo da (37,51 milioi); osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren ehuneko 71 baitira eta ehuneko 12 jaitsi baitira (53,88 milioi) 2017koekin alderatuta. Bestetik, “beste hartzekodun batzuk” atalari dagozkio kontuen epigrafea ehuneko 177 igo da (89,19 milioi), funtsean ekitaldi horretan lehenengo aldiz sartu delako diru-bilketako kontu murriztuen saldoa, zeina 67,83 milioikoa baita.

Bestalde, balantzearen pasiboan, eta zergen itzulketa dela-eta dauden aurrekontu-hartzekodunen eta beste hartzekodunen barruan, tributu-zordunen saldo hartzekodunak erregistratzen dira CATen informazioaren doikuntza baten bitartez. 2018an, doikuntza orokorra 254,86 milioi eurokoa izan zen.

Kontu Orokorren egoerari buruzko balantzea lortzen da kontabilitateko aplikazio informatikoko egoerari buruzko balantzean oinarrituta, kontabilitatez besteko doikuntza bat eginez CATeko zordunei eta hartzekodunei buruzko zerga-informazioarekin.

Bere horretan jarraitzen du CATen eta SAPGE21en arteko loturaren arazoak, eta horren ondorioz bi aplikazioen arteko informazio-traspasoa ez da egokia.

V.12. DIRUZAINNTZA

2018ko abenduaren 31ko diruzaintza 437,48 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota haue-
tan zegoen:

Kontzeptua	(euroak, milakotan)		
	2017/12/31ko saldoa	2018-12-31ko saldoa	2018/2017 aldea (%)
Inbertsio-kontu finantzarioak (funtsak)	616.461	6	-100
Diru-sarreraren kontu bereziak	13.331	16.723	25
Diru-bilketarako kontu murriztuak	0	67.833	-
Kontu korrante operatiboak	1.344	352.919	26.159
Guztira	631.136	437.481	-31

Diruzaintzako saldoek ehuneko 31 egin dute behera (193,66 milioi), batez ere inbertsio-kontu finantzarioak jaitsi direlako, 616,45 milioi guztira, eta arestian aipatutako Berehalako Informazio Sistema ezarri delako.

Aurreko funtsek 16.303 euroko interesak sortu dituzte; 2017an sortutakoak, berriz, 198.111 milioioak izan ziren.

2018an guztira 250 milioi kontzentratu ziren epe laburreko diruzaintza-beharrei aurre egiteko kredituetan; diru hori guztia erabili zen, baina eragiketa horiek ez zuten kostu finantzariorik eka-
rri.

Banku-zirkularizazioaren bidez lortutako informazioan, honako gorabehera hauek aurkitu di-
tugu:

- Kutxa finkoko aurrerakinen kontuetan 18.522 euroko aldea dago balantzean ageri den in-
formazioaren eta zirkularizazioaren emaitza denaren artean. Alde hori zor zaio NFKAk jarraitu-
tako kontabilizatze-irizpideari, zeina kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritakoaz beste
bat baita.

- Diru-bilketarekin lotutako zenbait finantza-entitateren kontuak badaude, 6,49 milioi egiten
dutenak eta NFKAren diruzaintzako zerrendan agertzen direnak, baina entitate horiek ez dituzte
haiek konfirmatu, nahiz eta informazio hori behin baino gehiagotan eskatu zaien.

Gainera, bi kontu badaude zeinei buruz ez baita informatu diruzaintzan: 9.367 eta 134 euro di-
tuzte, eta itxi beharko lirateke.

- Banku-entitate batek jakinarazi du NFKAk kontratatutako milioi bat euroko factoring linea
bat badagoela, zeinari buruz ez baita urteko kontuetan informatu.

- Diruzaintzari buruz oroitidazkian ematen den informazioan, bateratze bidezko doikuntza bat
aipatzen da, epigrafe horretako kontuetako baten balantzean egin dena; horretan, saldoa oinor-
detzen eta dohaintzen gaineko zergatik heldutako diru-sarrerari dagokien 3,81 milioi euroko kopu-
ruan jaisten da. Gure ustez, doikuntza hori ez zen egin behar, zeren eta kopuru hori lehendik
deskontatuta baitzegoen epigrafe horretako beste kontu bateko saldoan. Horrek esan nahi du
diru-bilketako kontu murriztuen saldoak aipatutako zenbatekoan handiagoa izan beharko lukeela.

Gure gomendioak:

- *Finantza entitateen dauden eta erabiltzen ez diren kontuak ixtea.*
- *Kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak kontabilizatzea kontabili-
tate publikoko plan orokorrean ezarritakoaren arabera.*
- *Urteko kontuetan dagoen factoring lineari buruz informatzea.*

V.13. ZORPETZEA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Zorpetzea

NFKAren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 3.085,36 milioi eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

(euroak, milakotan)

Nafarroako Gobernuaren zorra	2017/12/31	2018/12/31	2018/2017 aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.359.560	1.271.332	-6
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.586.000	1.484.500	-6
Epe luzeko maileguak sektore publikorako	22.699	24.043	6
Epe luzeko zorpetzea (A)	2.968.259	2.779.875	-6
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	240.104	155.222	-35
Epe laburreko maileguak finantza-entitateekin	0	109.333	-
Zor publikoaren epe laburreko interesak	31.869	26.343	-17
Maileguen epe laburreko interesak	17.866	14.587	-18
Epe laburreko zorpetzea (B)	289.839	305.485	5
Zorpetzea, guztira (A+B)	3.258.098	3.085.360	-5

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Guztizko zorpetzeak ehuneko bost du behera (172,74 milioi euro). 2018an, zor publikoak ehuneko 47 egiten du guztizkoan; 2017an, berriz, ehuneko 50 zen.

- 2018an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera batez besteko interes-tasa ondoren erakusten duguna da:

(euroak, milakotan)

Zorpetze modalitatea	Itundutako zorpetzea, 2018	2018ko batez besteko interes-tasa	Zorpetzea, guztira 2018/12/31	Interes tasa zenbatekoa
Nafarroako Zor Publikoa	65.600	1,95	1.426.554	3,41
Finantza entitateen maileguak	140.000	1,14	1.293.833	1,45
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	-	-	300.000	1,42
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.475	0
Beste sektore publiko batekiko maileguak	2.439	-	14.568	0
Zorra guztira	208.039	1,38	3.044.430	2,35

Maileguen bidezko zorraren batez besteko interes-tasa nabarmen txikiagoa da zor publikoarena baino.

2018an, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2017koarekin alderatuta: ehuneko 2,63tik ehuneko 2,35era.

Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Finantza-zama (milioiak)	200,30	300,54	401,48	415,74	519,98	384,80	469,45
Aurkibidea	100	150	200	208	260	192	234
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoak	6	9	12	13	15	10	12

Aztertutako aldian, zama finantzarioak ehuneko 134 egin du gora; izan ere, 2018an gora egin du, 2017an behera egin ondoren, eskura zegoen gerakina erabiliz zorraren amortizazio aurreratu egin baitzen. Diru-sarrera arrunten gainean duen garrantzi erlatiboak ere joera horri jarraitu dio.

- Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko dauden aurreikuspenak:

(euroak, milakotan)

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira.	Ehunekoa	Ehunekoa metatutakoa (%)
2019	265.831	8,8	8,8
2020	244.843	8,1	16,9
2021	230.975	7,6	24,5
2022	239.067	7,9	32,4
2023	252.296	8,3	40,7
2024	229.674	7,6	48,3
2025	269.673	8,9	57,2
2026	279.364	9,2	66,4
2027	308.753	10,2	76,6
2028	295.102	9,7	86,3
2029	207.533	6,9	93,2
2030	140.367	4,6	97,8
Sailkaezina	65.600	2,2	100,0
Guztira	3.029.078		

Ikus daitekeen bezala, zorraren ia erdia (ehuneko 48,3) 2024a baino lehen amortizatu beharra dago.

Zor "sailkaezintzat" gobernu zentralak lanbide heziketako ziklo berrietarako eta DBHko ibilbi-deetarako emandako aurrerakinei dagokie, eta haietan ez da amortizazio-eperik aipatzen.

Egiaztatu dugu ezen 2019an amortizatu beharreko zenbatekoa ez datorrela bat balantzean jasotakoarekin, zeren eta ez baita haren epe laburreko birsailkapena egin, eta zenbateko guztia epe luzeko zor gisa erregistratuta baitago.

- 2018ko martxoan, rating agentzia batek "A+", perspektiba positiboarekin" kalifikazioa (baimendutako maila altuena) eman zion Nafarroaren epe luzeko zorrari. Kaudimenari buruzko emaitza hori bi maila gorago dago Estatuarena baino. 2019ko martxoan, aipatutako agentziak kalifikazio horri eutsi zion; hori dela eta, Foru Komunitateak posizio horri eutsi dio.

Emandako abal eta konpromiso-gutunak

- Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 101,56 eurokoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

(euroak, milakotan)

Emandako abalak	Saldoa 2017-12-31n	Saldoa 2018-12-31n	Aldea (%) 2018/2017
I+G	117	70	-40
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	3.538	2.931	-17
"Nafarroa Abala" programa	2.653	2.307	-13
C.A. Osasuna	10.787	6.447	-40
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	17.500	14.808	-15
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	87.500	75.000	-14
Guztira	122.095	101.563	-17

Guztizko saldo bizia ehuneko 17 jaitsi da (20,53 milioi euro). Nabarmenezkoak dira Sodena-Europako Inbertsioen Bankuaren beherapenak (12,50 milioi).

2018an zehar, ez da eragiketa berririk abalatu, ez da konpromiso-gutun gehigarririk formalizatu, eta ez da fidantzapeko obligazioen ez-betetzeengatik gasturik izan.

Sodenarentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mai-legu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi), bai eta

abala exekutatzeko unean Sodenak entitate horri edozein finantzaketa-kontraturen kontzeptuan (interesak, komisioak, zamak eta abar) zor diezaiokeen edozein zenbatekoren gainekoa ere. Gainerako abaletan, NFKAk soilik maileguaren printzipala dela-eta erantzuten du.

Ez dago jarririk abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntzarik.

Gure gomendioak:

- *Epe luzeko zorra epe laburreko zor gisa birsailkatzea, urtebetetik beherako mugaeguna duten zenbatekoei dagokienez.*

- *Abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arriskueterako hornikuntza jartzea.*

V.14. SOZietate eta Fundazio Publikoak

Sozietate publikoak

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Dirulaguntzak Foru Adminis-trazioa	Ekarpenak NEKP	Epe luzeko zor-petzea ⁽²⁾	Ondarea garbia	Batez bes-tekoa langileak
CEIN	61	779	0	5	641	31
CNAI	-30	0	50	0	26	26
Tuterako Nekazaritza Elikatzaileak	342	0	0	79	51.410	3
GAN	-190	0	246	10	2.974	102
Intia	8	5.913	1.500	14	554	194
NASERTIC	188	195	0	0	7.975	99
Nasuvinsa	8.493	2.441	4.500	16.465	210.637	88
Natural Climate Systems SA	-5	0	0	0	48	0
NICDO	-4.799	1.380	5.750	12.400	62.349	37
Nilsa	0	0	0	0	902	38
Potasas de Subiza SAU	2.172	0	0	0	2.096	0
Salinas de Navarra SA	2.392	0	0	0	23.021	57
Sodena	-6.426	0	7.800	62.506	48.759	21
Start Up Capital Navarra SA	-131	0	0	0	1.510	0
Tracasa	231	0	0	313	9.245	80
Tracasa Instrumental	353	0	0	2	26.694	319
NEKP	4.571	0	0	0	463.320	11
Guztira⁽¹⁾	7.231	10.708	19.846	91.794	912.161	1.1061106

(1) Bateratu gabeko datuak.

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

NEKPren enpresa taldearen osaera, honakoa zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

NEKPren Taldearen osaera	2017	2018
Menpekoak-Sozietate publikoak	17	17
Elkartuak eta talde anitzekoak	15	11
Parte hartutako beste batzuk	54	51

Honako hauek dira Nafarroako enpresen sektore publikoaren 2018ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

(euroak, milakotan)

NEKP taldearen adierazle bateratuak	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Ondare garbia	641.542	645.503	1
Epe luzerako zorrak	120.549	94.253	-22
Pasibo arrunta	87.615	100.448	15
Maniobra-funtsa	300.811	281.104	-7
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	79.477	106.699	34
Negozio-zifraren zenbateko garbia	176.402	185.393	5
Negozio-zifraren ehunekoa, NFKAren batera egindakoa	24	24	-
NFKAtik jasotako kapitaleko dirulaguntzak (1)	2.383	2.250	-6
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	7.770	8.459	9
Langile-gastuak	53.023	56.719	7
Ustiapeneko emaitza	10.584	15.410	46
Ekitaldiko emaitza bateratua	-369	2.920	891
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	-726	2.388	429
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (2)	75.673	71.050	-6
NEKPko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	6,6	6,3	-5
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	15	15	-

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2018ko epe luzeko zorrak ehuneko 22 txikiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino, eta 94,25 milioi dute guztira.
- 2018ko pasibo korrantea ehuneko 15 handitu da 2017koarekin alderatuta, eta 100,45 milioi-koa izatera iritsi da.
- NFKAtik jasotako dirulaguntzak guztira 10,71 milioi-koa izan dira 2018an; zenbateko hori ehuneko bost handiagoa da 2017koa baino.
- Eskudiruak eta bestelako aktibo likidoak ehuneko 34 egin dute gora 2018an (27,22 milioi) aurreko ekitaldian zeudenekin alderatuta.
- Ustiatzearen emaitza, ekitaldiaren emaitza bateratua eta sozietate nagusiari esleitutakoa nabarmen hobetu dira 2018an, 2017ko adierazleekin alderatuta, eta azken bi horiek positiboak dira; aurreko ekitaldian, berriz, negatiboak ziren.

Sozietate publikoek urteko kontuen auditoria aurkezten dute, eta guztiek alketarik gabeko iritzia dute, Natural Climate Systems SAre (MIYABI) kasuan izan ezik, 2019ko otsailan desegin eta likidatu zenez ez baitzen auditoretzarik egin.

2018an enpresa publikoek legedia betetzeari buruzko auditoretza egin zen, 2017ko ekitaldiari zegokionez. Auditoretza hori kanpoko enpresa pribatu batek egin zuen. Auditoretza horien helburuak izan ziren honako alderdi hauek egiaztatzea: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen betetzea, zorpetze-eragiketei dagokienez; obrei, hornidurari, laguntzari eta obra publikoen eta zerbitzuen emakidei aplikatzekoa zaien kontratazio-araudiaren betetzea; langileen kontratazioei eta ordainsari-sistemei buruzko araudiaren betetzea. Honako hauek dira auditoretza horien emaitzak:

a) Zorpetze-eragiketei dagokienez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, oro har.

b) Kontratazio administratiboei dagokienez, bi gorabehera-mota detektatu dira:

- Kontratazio-prozedura desegokiak erabiltzea, zenbatekoa dela eta, 11 kasutan.
- Kasuko lizitazio-prozeduretan ezarritako baldintzetako batean akatsak egotea (formulak oker aplikatzea, iragarkiak epez kanpo egitea eta egiaztatgiriaren akatsak egotea) zazpi kasutan.

Gainera, lau enpresari buruzko txostenetan arreta deitu da 6/2006 Foru Legea baino lehenagoko kontratuak egoteari buruz; izan ere, kontratu horiek urtero-urtero luzatzen joan dira kasuko lizitazio-prozedura egitera jo gabe.

c) Langileen kontratazioak eta ordainsari-sistemak aztertuta, konklusioa da araudia bete egin dela, oro har. Halere, bi salbuespen-mota aipatzen dira, kontratazioan berrezarpen-tasaren muga gainditzearekin (zazpi kasu) eta zuzendaritza-kargudunen ordainsariekin (kasu bat) lotutakoak.

Fundazio publikoak

Hurrengo taulan fundazio publikoen 2018ko datu metatu batzuk eta haien eta 2017koen arteko alderaketa erakusten ditugu:

(euroak, milakotan)			
Adierazlea	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Ondare garbia	1.839	1.839	-
Epe luzeko zorra	5.420	5.584	3
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	15.068	15.070	-
Nafarroako Gobernutik jasotako dirulaguntzak	9.432	10.164	8
Langile-gastuak	7.130	7.848	10
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.776	5.367	93
Maniobra-funtsa	5.751	5.929	3
Ekitaldiko soberakina	219	-657	-400
Goi karguen kopurua (A)	4	4	-
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	150	157	5
Langileen kopuru osoa (A+ B)	154	161	5

Fundazio publiko guztiek, Conservación del Patrimonio Histórico de Navarra Fundazioak izan ezik, urteko kontuen auditoretza aurkeztu dute, eta guztiek ere aldaketarik gabeko iritzia dute. Aipatutako fundazio horrek salbuespen bat jasotzen duen iritzia dauka, kontabilizatutako diru-sarreraren arrazoizkotasuna dela-eta behar den ebidentzia falta delako. Bestalde, Baluarte fundazioari buruzko txostenean, azpimarra-paragrafo bat badago haren ondare garbi negatiboari buruz, zeina 0,84 milioi eurora iristen baita; horri dagokionez, entitate fundatzaileak jada berariaz adierazia du laguntza finantzarioa emanen duela konpromisoen eta ordainketa-betebeharren betetzea ahalbidetze aldera eta eragiketen jarraitutasuna segurtatze aldera.

Enpresa publikoekin gertatzen den bezala, 2018an amaitu zen fundazio horiek 2017an legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza, enpresa pribatuei egindako kontratazioen bitartez, enpresa publikoentzat deskribatuta dauden helburu berdinekin. Emaitza aldekoa izan zen bost fundazioetatik hirtan; beste bietan, berriz, honako gabezia hauek aurkitu ziren:

Fundazioa	Nabarmendu beharreko alderdiak
Miguel Induráin	Kontratu batzuetan kontratazio administratiboaren arloko araudia ez betetzea
Miguel Servet	Langileen berrezarpen-tasaren arloan ez da araudia betetzen.

Gure aholkua da behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezarri behar direla enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezkotasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga